

3. (1527)



3.1 1527. URTEA

3.1.1. Altzolarats jauregikoen kontratu eta gainerako agiriak

- 1527-I-2an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Altzolarats jauregiko Ana Arretxe alarguna eta Zumaiako Joan Esnal elkartu ziren. Joanek Anari urrezko 65 dukateko zorra egin zion lehenago, eta egun hartan 65 dukatak ordaindu egin zizkion. Beraz, Anak ordainagiria eman zion Joani. Lekuko Joan Otxoa Artazubiagakoa, Otxoa Martinez Beduakoa eta Domingo Arrona (Anaren semea) izan ziren (ikus [XVI. m. (27-I) 1] agiria).

- 1527-I-18an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin Domenja Lili alarguna eta seme San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa batxilerra elkartu ziren. San Joan Perezek zioenez, Altzolarats jauregikoek (Ana Arretxe, Juliana Gebara eta Maria Perez Aronakoa emazteak) auzia izan zuten Oñatiko konderriko Bidaurretako komentarekin. Arbitroak izendatu zituzten eta epaia eman zuten. Ondorioz, 155 dukat eman behar zizkioten epeka Bidaurretako mojei. Ana Arretxe alargunak herena ordainduko zuen, eta San Joan Perez batxilerrak bi heren, hau da, 103,33 dukat.

Kopuru hura eskatu eta Domenja amak ordaintzeko konpromisoa hartu zuen, hain zuzen San Joan Perezen eta Maria Perez Arronakoaren arteko ezkontza-kontratuan Domenjak Altzolarats jauregiko zorrak semearen senipartetik ordaintzeko konpromisoa hartu zuelako. Amak Altzolarats jauregiko beste zor batzuk ere ordaindu zituen: Indagarateko lursaila, Joan Arbestain zumaiarrari 61 txanpon, etab. San Joan Perez batxilerrak ama Domenjari guztiaren ordainagiria eman zion. Lekuko Domingo Agirre eskribaua eta Joan Ezenarro gaztea (Altzolarasko Erretzabalen bizi zena) izan ziren.

Jarraian San Joan Perez batxilerrak zin egin zuen amari emandako ordainagiriaren aurka ez zela joango eta 25 urtez azpikoa zela ez zuela argudiatuko. Le-

kuko Domingo Agirre, Joan Ezenarro zurgin-maisua, Joan Ezenarro semea eta Domingo Aspe izan ziren (ikus [XVI. m. (27-I) 6] agiria).

- 1527-II-21ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Domenja Lili, Ana Arretxe eta Domingo Arrona (Anaren semea) elkartu ziren. San Joan Perez Idiakiatz-Lilikoa batxilerra Altzolarats jauregira ezkondu zenean, ama Domenjak 1.550 dukateko dotea agindu zuen. Egun hartan dotearen azken 250 dukatak ordaindu zizkion Domenjak Altzolarats jauregiko Ana Arretxeri (Domingo Arronaren alargunari), eta honek 250 dukatak seme Domingo Arronari eman zizkion. Ana eta Domingo ama-semeek ordainagiria eman zioten Domenjen Lili alargunari. Ordainagirian lekuko hiru zestoar izan ziren: Domingo Zabala, Joan Lizaso "Suhi" eta Joan Artsuaga.

Egun eta leku berean, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Domingo Arrona semeak zin egin zuen 25 urte bete gabea zelako gero ordainagiriaren aurka ez zela joango (ikus [XVI. m. (27-II) 6] agiria).

- 1527-II-21ean, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin Altzolarats jauregiko Ana Arretxe alarguna eta Domingo Arrona semea zeuden. Domingo Arronak, Domenja Lilik emanda, 250 dukat jaso zituen, San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa batxilerraren ezkontza-kontratuan aginduta bezala.

Dena den, 250 dukat haiek Domingok ama Anari eman zizkion gordetzeko, baina handik aurrera amari eskatu ahala hark Domingori eskatutakoa eman egingo zion. Lekuko Domingo Zabala, Joan Lizaso "Suhi" eta Joan Artsuaga izan ziren (ikus [XVI. m. (27-II)7] agiria).

- 1527-III-4an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin Domenja Lili alarguna eta Zestoako Joan Ezenarro zurgin-maisua elkartu ziren. Domenjak, bere seme San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoren izenean,



3.1. irudia. Aizarnako eliza. Altzolarats jauregikoen hilobia.

kontratua egin zuen Joan Ezenarrokekin Altzolarats jauregiko burdinola eta ondoko etxea konpontzeko.

Joanek sutegi, zepo eta hauspatagian behar ziren pieza berri guztiak ipiniko zituen, “errotila”, hauspoaren azpiko bi burukoak, bergamazoa bere “goiarrarekin” eta abar izan ezik. Berriak ipiniko zituen, halaber, “uharen” zepoen eta sutegiaren artean behar zena. Hauspoen gurpila, ardatza eta gezurraska berriak egingo zituen.

Joan Ezenarrok mazoaren ardatzari pujoia zepo bat berria egingo zion. Bestea ere, behar baldin bazen, berria egingo zuen, baina aparte kobratuta. Mazoaren burukotegiaren azpiko piezatik kanpo lau zur berri ipiniko zituen. Mazoaren gurpila ere osorik berria egingo zuen, baina ardatza ez. Gezurraska ere berria egingo zion.

Aldaparoan zurezko uztarri eta zapata berriak egingo zituen Joanek, behar zenean. Burdinolako presa ere behar bezala istinkatuko zuen. Burdinolaren ondoko etxean bederatzi gapirio berri egin eta ipiniko zituen mandoen ukuiluaren sabaian, eta behar ziren oholak ere egin eta ipiniko zituen.

Joan Ezenarrok lan guztiak hurrengo San Migel egunerako amaituta edukiko zituen. Domenjak guz-

tira 42 dukat ordainduko zizkion: 20 dukat egun hartantxe, 11 dukat lanean hasitakoan, eta gainerakoa lan guztiak amaitutakoan. Behar ziren iltze eta burdinak Domenjak hornituko zituen. Joanek Urdaneta eta Altzolaratsen San Joan Perez batxilerraren basoetan behar zuen egur guztia atera ahal izango zuen, baina haritz nagusiak moztu gabe.

Kontratu-agirian lekuko Zestoako Joan Martinez Lilikoa, Pedro Iribarrena eta Joan Artsuaga izan ziren (ikus [XVI. m. (27-III) 1] agiria).

- 1527-III-4an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin Domenja Lili alarguna eta Zestoako Pedro Iribarrena hargina elkartu ziren. Domenjak, bere seme San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren izenean, kontratua egin zuen Pedro Iribarrenarekin Altzolarats jauregiko burdinolan hormak eraikitzeko. Estoldaren aldean zegoen horma zaharra bota eta berria egingo zuen Pedrok, harriz eta karez, burdinolako beste hormekin lotzeraino. Mazoaren eta hauspoaren ardatzentzat zuloak izango zituen hormak.

Aldaparoan harri handiak ipiniko zituen bi beso eta erdiko tarteaz, Joan Ezenarro zurgin-maisuak agindutakoaren arabera. Pedro Iribarrenak lanak hurrengo ekaineko San Joan egunerako amaituta edukiko zituen. Do-

menjak paretaren “estado” izeneko neurri bakoitzeko zazpi txanpon emango zizkion. Sei dukat egun hartantxe aurrreratu zizkion, eta lanen erdiak egindakoan prezio osoaren bi herenak osatzerainokoa emango zion. Azken herena lan osoa amaitutakoan kobratuko zuen Pedro harginak.

Domenja Lilik, Pedro harginak lanerako behar zuen kare guztia Urdanetako elizan utziko zion; baita hondar ona ere. Kontratuan lekuko Joan Martinez Lilikoa, Joan Ezenarro zurgin-maisua, eta Joan Artsuaga izan ziren (ikus [XVI. m. (27-III) 2] agiria).

- 1527-IV-7an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Altzolarats jauregiko Ana Arretxe eta Martin Ondalde azaldu ziren. Martinek Anari 15,5 dukateko zorra egin zion lehenago, eta egun hartan ordaindu zizkion 15,5 dukatak. Anak ordainagiria eman zion. Lekuko Domingo Aranguren, Tomas Egaña eta Domingo Arrona (Anaren semea) izan ziren.

Jarraian, leku berean eta eskribau beraren aurrean, Maria Joan Potzuetak Martin Ondalderi ordainagiria eman zion; izan ere, Martinek Joan Potzuetak senar zenari zor zion guztia ordaindu baitzion Maria Joan alargunari. Lekuko Pedro Iribarrena, Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Joan Gorosarri izan ziren (ikus [XVI. m. (27-IV) 3] agiria).

- 1527-VI-25ean, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean honako hauek elkartu ziren: Zestoako Domenja Lili alarguna eta Azkoitiko Domingo Urkizu. Domingok zioenez, Altzolarats jauregiko Joan Beltran Gebarak, Maria Perez Altzolaraskoak eta Getariako Santiago Gebarak 231 dukateko zorra egin zioten. Ordaintzen ez ziotelako, Domingok Santiago Gebararen eta Maria Perezen ondasunak exekutatzeari eskatu zuen. Joan Beltran Gebararen parte (herena, hau da, 77 dukat, 8 txanpon eta 3 marai) Domenjak ordaindu zizkion Domingori, Domenjaren seme San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren ezkontza-kontratuan Joan Beltranen zorren erantzule egin zelako.

Domingo Urkizuk Domenjari zorraren herenaren ordainagiria eman zion. Lekuko hiru hauek izan ziren:

Azkoitiko Joan Lopez Zubiaurrekoa, Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Markinako Domenja Ituio.

Santiago Gebara getariarra Joan Sebastian Elkarenen Moluketarako bigarren espedizioan zebilen orduan Mexiko aldean. Ez dakigu Joan Beltran Gebararekin zein senidetasun-maila zuen Santiagok. Agian Joan Beltranen aita Fernando Gebara zenaren anaia izango zen. Maria Perez Altzolaraskoa, berriz, Martin Baltzola zenaren alarguna zen, Katalina Baltzolaren ama eta Joan Arronaren amaginarreba.

Egun eta leku berean, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Azkoitiko Domingo Urkizuk eta Joan Ibañez Mezetakoak Domenja Liliri obligazio-agiria eman zioten. 157 dukat, 41 txanpon eta 6 marai ordainduko zizkieten hiru epetan: hurrengo Eguberri egunean 57 dukat, 41 txanpon eta 6 marai; handik urtebetera 50 dukat; eta handik urtebetera azken 50 dukatak.

Berez Domenjak guztira 235 dukat eman zizkien, baina Joan Beltran Gebararen herena (27 dukat, 8 txanpon eta 3 marai) kenduta, 157 dukat, 41 txanpon eta 6 marai ordainduko zizkieten (ikus [XVI. m. (27-VI) 18] agiria).

- 1527-VI-25ean, Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin Azkoitiko Domingo Urkizu eta Joan Ibañez Mezetakoa elkartu ziren. Domingori 231,5 dukat zor zizkieten Altzolarats jauregiko Joan Beltran Gebara zenak, Maria Perez Altzolaraskoa alargunak eta Getariako Santiago Gebarak. Domingok, hain zuzen, Maria Perezen eta Santiagoren ondasunak exekutarazi egin zituen korrejidorearen bidez, bakoitzari 77 dukat, 8 txanpon, 3 marai eta auzi-gastuak kobratzeko. Maria Perezen ondasunak bereganaturik zituen Domingo Urkizuk. Bestalde, Domingori Martin Larremendia suhiak 100 dukat zor zizkion.

Egun hartantxe Domingoren eskariz Joan Ibañez Mezetakoa Azkoitiarrak konpromisoa hartu zuen Domenja Lili alargunari 157 dukat, 41 txanpon eta 6 marai ordaintzeko. Azkoitiko Joan Lopez Zubiaurrekoari ere 30 dukat ordaindu behar zizkion. Hori guztia kon-



3.2. irudia. Getaria. Joan Sebastian Elkanoren monumentua.

tuan harturik, Domingo Urkizuk ahalmena eman zion Joan Ibañezi Zestoako Maria Perez Altzolaraskoari 77 dukat, 8 txanpon, 3 marai eta auzi-gastuak kobratzeko, eta Martin Larramendiari 100 dukat kobratzeko. Lekuko Azkoitiko Joan Lopez Zubiaurrekoa eta Zestoako Joan Gebara eta Joan Egurtza izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI) 19] agiria).

- 1527-VI-25ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Maria Perez Altzolaraskoak Joan Ibañez Mezetakoari 30 dukat ordaindu zizkion (Domingo Urkizuri egindako zorraren zati bat). Joanez Maria Perez ordainagiria eman zion. Jarraian Joan Ibañezek 30 dukatak Joan Lopez Zubiaurrekoa azkoitiarrari eman zizkion, eta honek ordainagiria egin zion.

Lekuko Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, Martin Itziar eta Joan Otxoa Artazubiagakoa zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI) 20] agiria).

- 1527-VII-6an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria Perez Altzolaraskoa eta Joan Ibañez Mezetakoa azkoitiarra bildu ziren. Joan Ibañezek ahalmena zuen Maria Perezek Domingo Urkizu azkoitiarrari egindako zorra kobratzeko. Maria Perez, Altzolarats jauregiko Joan Beltran Gebara zena eta Santiago Gebara getariarra ziren Domingori zorra egindakoak.

Domingok kobratu zituen egun hartarako Joan Beltranek eta Santiago Gebarak zor ziotena. Maria Perez Altzolaraskoak ere ordaindu zuen bere zorra, zor osoaren herena: 77 dukat, 8 txanpon eta 3 marai. Horrez gain auzi-gastuak (419 marai) eta bahitutako ondasunen fruitu eta errentak ere (12 dukat) ordaindu zituen. Sei marko pisatzen zituen zilarrezko zintaren bidez ordaindu zituen azken 12 dukatak.

Joan Ibañez Mezetakoak aske utzi zuen Maria Perez Altzolaraskoa zor hartatik. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Pedro Akoa, Joan Igartza eta Martin Artzuriaga. Jarraian Martin Artzuriaga zestoarra ere aske utzi zuten zorretik; izan ere, 18 dobloi (36 dukat) eduki zituen gordailuan, eta diru haiek itzuli egin zituen (ikus [XVI. m. (27-VII) 5] agiria).

- 1527-VII-18an, Zestoan, Altzolarats jauregiko Ana Arretxe alarguna eta Domenja Lili alarguna elkartu ziren Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Domenja Lilik 77 dukat, 8 txanpon eta 3 maraiko zorra ordaindu zion Domingo Urkizu azkoitiarrari. Berez Domingo Urkizuri zorra Joan Beltran Gebarak, Maria Perez Altzolaraskoak eta Getariako Santiago Gebarak egin zioten, eta Joan Beltrani zegokion herena zen Domenja Lilik ordaindu zuena. Domenja behartuta zegoen Joan Beltranen zorra ordaintzera, bere seme San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa batxilerra Maria Perez Arronakoarekin (Ana Arretxeren bilobarekin) ezkondu zenean kontratuak hala agintzen zuelako.

Ondorioz, Ana Arretxek ordainagiria eman zion Domenja Liliri. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Martin Otxoa Artazubiagakoa, Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Domingo Urbieta (ikus [XVI. m. (27-VII) 15] agiria).

- 1527-VII-21an, Aizarnako plazan, Altzolarats jauregiko Ana Arretxe alarguna eta Sebastian Artazubiaga bildu ziren Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Martin Ondalde ere bertan zen.

Sebastianek 24 dukat eman zizkion Anari; izan ere, zor hura Anaren senar zenak, Domingo Arronak, testamentuan zehaztu baitzuen. Horrez gain Sebastianek 600 kintal burdin mea Martin Ondalderi ordaindurik zeuzkan, Ana Arretxeren aginduz. Ondorioz, Ana alargunak bi ordainketen ordainagiria eman zion Sebastiani. Lekuko honako hauek izan ziren: Joan Martinez Amilibikoa eskribaua, Martin Itziar eta Joan Zuube hargina (ikus [XVI. m. (27-VII) 16] agiria).

- 1527-VIII-6an, Zestoako Lilin, bertako Domenja Lili alarguna Pedro Iribarrena harginarekin bildu zen Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Domenja bere seme San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa batxilerraren izenean aritu zen. Urte hartako martxoaren 4an Pedrok kontratua egin zuen Domenjarekin Altzolarats jauregiko burdinolan horma batzuk eta hargin-lanak egiteko (ikus [XVI. m. (27-III) 2] agiria).

Pedro Iribarrenak kontratuan zehaztutako lanak amaitu egin zituen. 24 besoko horma egin zuen, eta 12 dukat eta 48 txanpon zegozkion ordainetan. Alda-

paroko harri handiengatik eta izkinengatik 3 dukat zegozkion. Beraz, guztira 16 dukat ken bi txanpon kobratu zituen, eta Domenjari ordainagiria eman zion. Egindako lanak Joan Kamio hargin zestoarrak neurtu eta ikertu zituen. Lekuko Joan Martinez Lilikoa, Joan Egurtza eta Joan Arretxe (Akoakoa) izan ziren (ikus [XVI.m. (27-VIII) 2] agiria).

Aurreko urtean, 1526an, Altzolarats jauregiko Ana Arretxe, Juliana Gebara, Maria Perez Arronakoa eta honen senar San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa ados jarri ziren Oñatiko Bidaurretako komentuko mojekin, bertan zegoen Isabel Gebara mojak (Juliana Gebararen ahizpak) Altzolarats jauregikoei dirua eskatzen zielako. Bi aldeek arbitro epaileak izendatu zituzten auzia erabaki zezaten (ikus [XVI.m. (26-XII) 4] agiria).

- 1527-XII-30ean Aizarnan bildu ziren Altzolarats jauregikoak Zestoako Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Izendaturiko arbitroek beren epaia eman zuten, eta Blas eskribauak Oñatiko Migel Saez Elorduikoa eskribauak idatzitako agiriaren berri eman zien. Epaiak zioenez, Altzolarats jauregikoei komentuari urrezko 155 dukat ordainduko zizkieten epeka.

Bi aldeek epaia onartu egin zuten. Gainera, Ana Arretxek kopuruaren herena ordainduko zuen, eta San

3.3. irudia. Oñatiko Bidaurretako komentua.



Joan batxilerrak beste bi herenak. Horrela zehaztuta idatzirik utzi nahi zuten, San Joanen eta Maria Perezen ezkontza hausten baldin bazen ondasunak jatorrizko enborretara nola itzuli jakin zezaten. Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Bartolome Txiriboga, Martin Indo, Pedro Iribarrena eta Joan Igartza (ikus [XVI. m. (27-XII) 8] agiria).

Egun berean, Altzolarats jauregian, Blas Artazubiaga eskribauarekin San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa nagusia eta Joan Urdaneta maizterra elkartu ziren. Nagusiak maizterrari Aiako Urdaneta baserria bost urterako errentan eman zion, urte hartako Domu Santu egunetik kontatzen hasita.

Urdaneta baserriak bereak zituen soroak, baratzeak, sagastiak, gaztainadiak, intxaurdiak, larreak eta mendiak. Maizterrak etxerako su-egurra eta konponketak egiteko egurra hartu ahal izango zuen bertako mendietatik. Urdaneta baserrian 26 behi eta idi, 40 ardi, 22 ahuntz, 12 txerri eta 6 txerrikume zeuden. Behi eta idien bi herenak San Joan Perez nagusi eta batxilerrarenak izango ziren, eta heren bat Joan Urdanetarentzat. Gainerako abereak erdi bana haziko zituen maizterrak. Hala ere, maizterrak ganaduagatik urrezko 8 dukat eta 14 txanpon zor zizkion nagusiarri, eta haiek ordaindu arte abere guztiak hipotekaturik geratuko ziren nagusiarentzat, berme gisa.

Urdaneta baserriko sagarrak erdi bana izango ziren. Maizterrak sagasti berria eduki nahi bazuen, nagusiak aldatuko zizkion sagarrondoak, eta gero maizterrak aitzurtuko zituen ohi bezala. Maizterrak urtero errenta gisa 16 anega gari ordainduko zituen abuztuko Andre Mariaren egunean, eta 10 anega artatxiki Domu Santu egunean. Aiako Kontzejuan zegoen neurriaz neurtuko ziren anegak.

Joan Urdanetak urtean 6 gaztanbera emango zizkion San Joan Perez batxilerrari, eta bi kapoi ere bai Gabonetan. Maizterrak bere alea Altzolarats jauregiko errotan eho beharko zuen. Errenta aldiko azken urtean, abuztuko Andre Mariaren egunean, urte amaieran kontratua amaitutzat jo nahi zuen aldeak beste al-

deari jakinarazi egingo zion. Bestela, kontratua beste bost urterako luzatu egingo zen.

Errentamendu-kontratuan lekuko Joan Otxoa Artazubiagakoa, Joan Otaegi eta Joanes Larrañaga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-XII) 9] agiria).

3.1.2. Lilitarren ahalordeak, kapera, etab.

- 1527-I-18an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauak obligazio-agiria idatzi zuen. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak 50 dukat maileguz eman zizkion arreba Maria Perez Idiakaizkoari (Martin Lizarraratsen alargunari). Mariak hurrengo ekaineko San Joan egunean itzuliko zion zorra. Lekuko zestoar hauek izan ziren: San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa batxilerra, Domingo Agirre eskribaua, Joan Larrañaga eta Joan Ezenarro zurgin-maisua (ikus [XVI. m. (27-I) 5] agiria).

Domenja Liliren senar zenak, Joan Perez Idiakaizkoak, Toledon urrezko 800 dukat zeuzkan jasotzeko Alonso de la Torre eta emaztearengandik, eta Domenjaren ahalordeaz Joan Martinez Lilikoak (Domenja Liliren lehengusu propioak) gai hura konpontzeko Pedro Zuaizola errege-idazkaria arbitro izendatu zuen. Alonsok, berriaz, Joan Adurtza (ikus [XVI. m. (25) 74] agiria).

- 1527-I-27an, Liliko etxean, Zestoako Martin Ondalde alkatearen eta Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, Domenja Lili alarguna eta bere lau seme-alaba elkartu ziren: Joan Perez Idiakiatz-Lilikoa (seme zaharrena), San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa (Altzolarats jauregira ezkondua), Maria Perez Idiakaitz-Lilikoa (Joan Beltran Iraetaren emaztea) eta Ana Perez Idiakaitz-Lilikoa (Lekeitioko Martin Gartzia Igarzakoaren emaztea).

Domenja ama alargunaren esku utzi zuten Toledoko Alonso de la Torrek eta emazte Teresa de la Higuera zor ziotena kobratzeko ardura. Arbitro epai-leek erabaki zuten, Alonso de la Torrek 400 dukat ordaindu beharko zizkien Domenjari eta seme-alabei; baita beste 50 dukat ere, zortzi egunen buruan, auzian egin zituzten gastuak ordaintzeko. 50 dukat haiek

Joan Martinez Lilikoa apaizak, ahalordeaz, jaso eta Domenjari emanak zituen.

Gainerako 400 dukatak honela ordainduko zituzten epeka: 200 dukat Alonso de la Torrek eta emazteak, eta beste 200 dukatak Toledoko fidatzaile Pedro de la Fuente (100 dukat), Joan Montalban? (60 dukat) eta Diego Lopez de Usillok (40 dukat). Zorra lau epetan ordainduko zuten urtero Medina del Campoko maiaztzeko ferian 1529. urtera arte.

Domenjaren alaba Maria Perezen eta Ana Perezen senarrak han ez zeudenez gero, agirian parte hartzeko baimena Zestoako Martin Ondalde alkateak eman zien. Beraz, lau seme-alabek zorra kobratzeko eskubide guztiak Domenja Lili amari utzi zizkioten. Agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Agirre eskribaua, Martin Artzuriaga probestuordea, eta Joan Lizaso.

Jarraian, alkate, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, San Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak eta Ana Perez Idiakaitz-Lilikoak zin egin zuten agiriak zioenaren aurka ez zirela joango. Biak 25 urte bete gabeak zirenez gero, adingabeak zirela ez zuten gero argudiatuko (ikus [XVI. m. (27-I) 8] agiria).

-1527-II-2an, Zestoako Lili etxean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domenja Lilik ahalordea eman zien San Joan Perez Idiakatz-Lilikoa seme batxilerrari, Joan Martinez Lilikoa apaizari eta Domingo Agirre eskribauari. Domenjaren senar zenak, Joan Perez Idiakaizkoak, Bergaran Andres Martinez Jauregikoa lizentziatuari etxe eta ondasun batzuk saldu zizkion. Andres lizentziatuak, ordea, zorretan zeuzkan 30.000 marai, eta Domenjak haiek kobratzeko ahalmena eman zien lehentxeago aipatutako hiru zestoarrei.

Ahalorde-agirian lekuko Martin Artzuriaga, Domingo Aspe eta Joanes Larrañaga izan ziren (ikus [XVI. m. (27-II) 1] agiria).

- 1527-II-20an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauak obligazio-agiria idatzi zuen. Zestoako Beain



3.4. irudia. Lili jauregiko garita.

etxean (San Lorente aldean) bizi zen Fernando Sorazabali Liliko jaunak (Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak) burdinazko 24 kintal pletinaren balioa ordaindu zion. Fernandok burdina haiek hurrengo abuztuko Andre Mariaren egunerako Beduako errenterian ala Narruondokoan utziko zizkion, zerga guztiak ordainduta.

Obligazio-agirian lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Martin Artzuriaga, Jakobo Baltzola eta Joan Artzuriaga (ikus [XVI. m. (27-II) 3] agiria).

- 1527-II-20an, Zestoan, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak Blas Artazubiaga eskribauaren bidez ahalordea eman zion Martin Artzuriaga merioordeari; baita Gipuzkoako korrejimenduko Antonio Atxaga, Pedro Zabala eta beste zenbait prokuradoreri ere.

Migel Eraso zenak Joan Perezi 16 dukat eta 32 txanponeko zorra egin zion, eta ondorengoei zor hura ko-

bratzeko eman zien aipatutakoei ahalordea. Lekuko Fernando Sorazabal, Jakobo Baltzola eta Joango Artzuriaga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-II) 4] agiria).

- 1527-II-22an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Sebastian Artazubiaga (eskribauaren osaba) eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa elkartu ziren. Sebastianek Joan Perezi lehendik maileguz hartutako 50 dukat ordaindu zizkion, eta Liliko jaun Joan Perez merkatariak ordainagiria eman zion. Lekuko Joan Akoa, Martin Ibañez Zubiaurrekoa eta Domingo Ezenarro izan ziren (ikus [XVI. m. (27-II) 8] agiria).

- 1525. urtean hasita, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoaren emazte Maria Joan Zuatzola e honen ahizpa Andra Maria eta Madalena Zuatzola auzitan zebiltzan Debako Maria Iñigez Ondizkoarekin. Maria Iñigez umea Domeka Armendia zenaren eta honen bigarren senarraren alaba adingabea zen. Domekaren lehen senarra Joan Zuatzola izan zen, hau da, aipaturiko hiru ahizpen aita Joan Zuatzola kontulariaren sasiko semea. Joan Zuatzola anaitzakoa Domenjarekin ezkondu zenean, urrezko 80 florineko dotea eman zuen kontulariak, eta dote hura eskatzen zuten Maria Joan Zuatzolak eta bere bi ahizpek (ikus [XVI. m. (25) 78] eta [XVI. m. (26-IV) 4] agiriak).

1527. urtean auziak jarraipena izan zuen Gipuzkoako korrejidore Diego Vargas lizentziatuaren aurrean. Hain zuzen 1527-IV-11n korrejidoreak agindua bidali zion Maria Iñigez Ondizkoari korrejimendura aurkez zedin. Lau egun geroago, Maria Migel Amilibiari (Maria Iñigezen amonari) jakinarazi zion eskribauak agindua. Berriz ere saiatu ziren, maiatzaren 9an, korrejidorearen aginduaren berri ematen.

- 1527-V-17an, Azpeitian, korrejidorearen aurrean Maria Iñigez Ondizkoaren prokuradore Joan Lopez Etxanizkoak eskaera egin zuen, bere garaian Bartolome Ibarbia prokuradore zenak egindako itzulketa-eskaera prozesuan sar zedin.

Korrejidoreak ez zuen eskaera kontuan hartu, epez kanpo aurkeztu zuelako, eta 1527-VI-18an, Tolosan,

epaia eman zuen. Maria Iñigezen aldea kondentatu egin zuen Maria Joan, Andra Maria eta Madalena Zuatzola ahizpei urrezko 80 florin (Joan Zuatzola kontulariak dote gisa emandakoak) bederatzi eguneko epean itzultzera. Auzi-gastuak alde bakoitzak bereak ordainduko zituen.

- 1527-VI-23an, Tolosan, Joan Lopez Etxanizkoak epaiaren aurka egin zuen, eta gora jotzeko asmoa jakinarazi zion korrejidoreari.

- 1527-VI-29an, Tolosan, Antonio Atxaga prokuradoreak hiru ahizpen izenean beste idatzi bat aurkeztu zion korrejidoreari (ikus [XVI. m. (27-IV) 7] agiria).

- 1527-V-13an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domenja Lili alarguna eta Bergarako Andres Martinez Jauregikoa lizentziatua elkartu ziren. Lizentziatuak Domenjaren senar zenari, Joan Perez Idiakaizkoari, Bergaran etxea eta ondasunak erosi zizkion, baina 80 dukateko zorra geratu zitzaion ordaintzeko. Zor hura Bergaran kobratzeko Domenja Lilik otsailaren 2an ahalordea eman zion, besteak beste, Zestoako Domingo Agirre eskribauari (ikus [XVI. m. (27-II) 1] agiria).

Domingo Agirreri Bergaran Antonio Basalgarai eta honen emazteak 80 dukatak ordaindu zizkieten Andres lizentziatuaren izenean, eta Domingok Domenjari eman zizkion. Beraz, Domenja Lilik ordainagiria eman zion Andres Martinez Jauregikoa lizentziuari. Lekuko Martin Arano, Joan Arretxe eta Sebastian Lizarrarats izan ziren (ikus [XVI. m. (27-V) 7] agiria).

- 1527-V-14an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek elkartu ziren: Errezilgo Pedro Basabe eta Joan Lopez Ibarbiakoa, eta Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa. Bi errezildarrek 150 anega olo emango zizkieten zestoarrari Santiago egunean. 100 anega Errezilen utziko zituzten, eta 50 anega Goiatzen. Errezil eta Goiazko neurriaz neurtuko zituzten anegak. Zestoarrak anegako 10 txanpon ordaindu zizkien egun hartantxe.

3.5. irudia. Zestoako eliza. Lilitarren kapera.



Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Lizarrats (edo Artiga), Joan Arretxe eta Pedro Garratza (ikus [XVI. m. (27-V) 10] agiria).

-1527-V-15ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Domenja Lili alarguna elkartu zen. Domenjak zioenez, Joan Perez Idiakaizkoa senar zenari zorra egin zioten Usurbilgo Joan Zelaiandiak, Martin Zelaiandiak eta Joango Ibarrolak. 23 kintal eta 112 libra burdina zor zizkioten Joan Perezi, eta zordunei ondasunak exekutatzan hasi ziren. Orduan Joango Ibarrolak zor osoa eta auzi-gastuak ordaindu egin zizkion Domenja Liliri.

Ondorioz, Domenjak eskubide guztiak Joango Ibarrolari utzi zizkion, hark beste bi zordunei zegokiona kobra ziezaien. Agirian lekuko Zestoako Joan Martinez Lilikoa, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa (Domenjaren seme zaharrena) eta Hernaniko Joan Martinez Aierdikoa izan ziren (ikus [XVI. m. (27-V) 11] agiria).

1524. urtean Kontzejuak kontratua egin zuen Joan Abieta harginarekin, Zestoako elizan kapera nagusia eraikitzeko. Orduan aipatu zutenenez, Liliko kapera eraikitzen ari ziren eta horma bat bota egingo zioten (ikus [XVI. m. (24) 11] agiria).

- 1526-III-25ean Domenja Lilik tratua egin zuen Joan Amilibiarekin, honek 200 beso harri ekar zitzaizkion (ikus [XVI. m. (26-III) 5] agiria).

- 1527-V-20an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domenja Lili zestoarra eta Debako Sebastian Aratristain, hargin-maisua, eta Migel Ibañez Plazaolakoa, fidatzailea, elkartu ziren. Domenjak zioenez, Zestoako elizan lilitarren kapera eraikitzen hasi ziren, baina horma eta arkuak gaizki zeuzkan eta, haien botata, berria egin behar zen. Zer bota eta berria nola eraiki erabakitzeko, Pedro Legorreta, Pedro Leizaratzu eta Pedro Alzaga hargin-maisuek beren txostena egin zuten.

Sebastian Aratristainek ontzat eman zuen erabat txostena, eta bere burua behartu egin zuen kapera horrela eraikitzea. Txostenean aipatzen ez ziren horma eta zimenduak ere behar bezalakoak egingo zituen. Kapera amaitu eta zurituta entregatuko zuen, elizako kapera nagusiari ongi uztertuta. Marrazki edo planoaren arabera egingo zuen obra.

Lanak hurrengo Eguberri egunerako amaituta edukiko zituen Sebastianek. Handik urtebeteko epean kaperan azaltzen akatsak Sebastian Aratristainek konpondu eta ordaindu beharko zituen. Domenjak

lanagatik guztira 115 dukat emango zizkion hargin-maisu debarrari; baita Beduan, bideetan eta kapera ondoan zeuzkan hareharriak ere. Halaber, Sebastianek erabili ahal izango zituen kaperan zeuden lokarri, aparailu, ohol eta gainerako gaiak.

Domenja Lilik egun hartan 70 dukat eman zizkion Sebastian hargin-maisuari urrezko 35 dabloitan. Beste 22 dukat lanen erdia egindakoa ordainduko zizkion Domenjak, eta azken 23 dukatak lanak erabat amaitutakoan. Domenjak eskubidea izango zuen noiznahi hargin-maisu bat edo bi lanak ikertzera bidaltzeko. Kaperaren planoan Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak (Domenjaren semeak) gordeko zuen.

Kontratu-agirian lekuko Pedro Alzaga hargin-maisu azpeitiarra, Joan Martinez Lilikoa eta Domingo Zabala zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-V) 14] agiria).

Jarraian, kontratuan Migel Ibañezek fidatzaile gisa parte hartu zuelako, Sebastian Aratristainek agiria egin zion Migeli obligazio hartatik onik eta kalterik gabe ateratzeko (ikus [XVI. m. (27-V) 15] agiria).

Egun berean, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: batetik Domenja Lili eta seme Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, eta, bestetik, Domingo Zabala zestoarra. Domingo amasemeen ahalordeaz Burgosen eta Medina del Campo, Medina de Rioseco eta Villalongo ferietan izan zen. Han zor batzuk kobratu zituen, eta diru haiek Domenjari eta Joan Perezi eman zizkien. Beraz, ama-semeek ordainagiria eman zioten.

Lekuko honako hauek izan ziren: Zestoako Joan Martinez Lilikoa eta Debako Sebastian Aratristain eta Migel Ibañez Plazaolakoa (ikus [XVI. m. (27-V) 16] agiria).

- 1527-VI-27an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Joan Amilibia hargina bildu ziren. Joan Amilibiak hurrengo abuztuko Andre Mariaren egunerako 2.500 anega kare egingo zizkion. Urak ukitu gabeko karea Liliko

etxearen eta ibaiaren artean utziko zion Joan Perezi. Harrobian bertan pisatuko zuten karea.

Joan Perez Idiakaitz-Lilikoak 2.500 anega kareren prezioa dirutan ordaindu zion. Obligazio-agirian lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Arretxekoa, Jakobo Baltzola eta Domingo Agirre. Ez dakigu Joan Perezek karea non erabiliko zuen (ikus [XVI. m. (27-VI) 21] agiria). Baliteke elizako lilitarren kaperarako izatea, edo, agian, Lili jauregiko dorre berrian erabiltzeko izatea.

- 1527-VII-3an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domenja Lili alarguna azaldu zen. Domenjaren seme-alabak hauek izan ziren: Joan, San Joan, Martin, Maria eta Ana Perez Idiakaitz-Lilikoa. Martin Perez semea Siziliako Palermon zebilen, baina hango Aloisio Urso eskribauak eginda semearen ahalordea zuen amak.

Beraz, Domenjak bere izenean eta seme-alaben izenean ahalordea eman zion Zestoako Domingo Agirre eskribauari. Toledora joango zen Alonso de la Torreri, emazteari eta hango beste zenbaiti urrezko 400 dukat kobratzera. Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Esteban Artazubiaga, Joan Arretxe eta Martin Artzuriaga (ikus [XVI. m. (27-VII) 1] agiria).

- 1527-VII-3an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Domingo Zabala elkartu zen. Domingok zioenez, Joan Legarda zenaren oinordekoek 67,5 txanpon zor zizkioten. Haiek kobratzeko ahalmena Domenja Liliri eman zion. Lekukoak Domingo Agirre, Anton Arretxe eta Martin Otxoa Artazubiagakoa (Blasen aita) izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VII) 2] agiria).

- 1527-VII-4an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauak ahalorde-agiria idatzi zuen. Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa merkatariak Zestoako Domingo Agirre eskribauari eta Getariako Frantzisko Arronari eman zien ahalordea. Hauek, Joan Perezen izenean, Medina del Campoko “maiatzeko feria” deitutakoan, Valentzian eta Bartzelonan igorritako truke-letra batzuk kobratuko zituzten. Kobratzen ez bazituzten, letren igorleen pertsona eta ondasunen aurka letrak protestatu, turkatu eta birturkatu ahal izango zituzten.

3.6. irudia. Azpeitiko Egurtzagoikoa.



Ahalorde-agirian lekuko Joan Egurtza eta Anton Arretxe izan ziren, besteak beste (ikus [XVI. m. (27-VII) 3] agiria).

Egun eta leku berean, Blas Artazubiaga eskribauarekin Domenja Lili alarguna elkartu zen. Domenjak errege-erreginarenean pribilegioaren bidez Burgosko hiriak emanda, urtero eta betiko, 60.000 marai kobratzeko eskubidea zuen. Beraz, Domenjak ahalordea eman zion Zestoako Domingo Agirre eskribauari, haren izenean Burgosen Joan Ortega de Curiel jaunarengandik kopuru hura kobrazan.

Ahalordean lekuko hauek izan ziren: Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, Anton Arretxe eta Joan Egurtza (ikus [XVI. m. (27-VII) 4] agiria).

- 1527-VII-8an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauak ahalorde-agiria idatzi zuen. Domenja Lilik 18 dukat eta 15 txanponeko zorra kobratzeko zeukan Migel Goizuetarengandik; izan ere, Migelek Domenjaren senar zenari (Joan Perez Idiakaizkoari) maileguz hartu zizkion diru haiek Joan Bono Durangokoa eskribauaren aurrean. Ahalordearen bidez, Errenteriako Nikolas Agirre sokagileak kobratuko zien zorra Migelen ondorengoei.

Ahalordean lekuko Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa, Joan Martinez Lilikoa eta Martin Artzuriaga izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VII) 8] agiria).

- 1527-VII-29an, Zestoan, Arroako Joan Armendiak obligazio-agiria eman zion Zestoako Joan Perez Idiakaitz-Lilikoari, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Arroarrak zestoarrari 10 kintal burdina pletinatan emango zizkion Beduako erreterian inauteri egunean. Joan Perezek dirutan ordaindu zion Joan Armendiari burdinaren balioa.

Lekuko Pedro Altzolarats, Pedro Garratza eta Joan Otxoa Artazubiagakoa izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VII) 24] agiria).

- 1527-VIII-6an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauak salmenta-agiria idatzi zuen. Saltaileak Debako Joan Urainziar eta Joan Armendia ziren, eta eroslea Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa merkataria. Joan Perezek lanerako zaldi zurixka bana erosi zien: Joan Armendiari 12 dukatean eta Joan Urainziarri 7,5 dukatean.

Salerosketa-agirian lekuko Zestoako Pedro Iribarena eta Lope Ernataritz, eta Arroako Domingo Larretxe izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VIII) 3] agiria).

Egun eta leku berean, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa erositako bi zaldiak beren tresnekin Martin Leizaola debarrari utzi zizkion. Martinek behar bezala zaindu eta gobernatuko zituen Joan Perezek nahi zuen arte. Zaldi haiekin lan eginda lortutako irabazien bi heren Martin Leizaolarentzat izango ziren, eta heren bat Joan Perezentzat (ikus [XVI. m. (27-VIII) 4] agiria).

- 1527-IX-8an, Arroan, Beainen bizi zen Fernando Sorazabal eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa elkartu ziren Blas Artazubiaga eskribauarekin. Fernandok konpromisoa hartu zuen Joan Perezi 28 kintal burdina pletinatan hurrengo martxoko Andre Mariaren egunean emateko. Zergak ordainduta Beduako ala Narruondoko erreterian utziko zizkion. Joan Perezek kintal haien balioa dirutan ordaindu zion Fernandori.

Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Otxoa Martinez Beduakoa, Lantzarote Bedua anaia, Martin Artzuriaga eta Joan Urbieta (ikus [XVI. m. (27-IX) 1] agiria).

- 1527-IX-17an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin Domenja Lili eta Martin Artzuriaga (Zestoako probestuordea) elkartu ziren. Domenjak bere senar zenaren eta seme-alaben izenean ahalordea eman zion Martini haiei zor zizkieten era guztietako diru, burdina eta gauzak haientzat eta haien izenean kobratu ahal izateko. Ahalordeak urtebeteko iraupena izango zuen. Lekuko hauek izan ziren: Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa (Domenjaren semea), Domingo Ezenarro eta Azpeitiko Domingo Atxaran apaiza (ikus [XVI. m. (27-IX) 5] agiria).

Egun eta leku berean, lekuko eta eskribau beraren aurrean, honako hauek bildu ziren: batetik bertako Domenja Lili alarguna, eta, bestetik, Erretereriako Pedro Amasa eta honen emazte Maria Martin Agorreta. Pedrok eta Maria Martinek Domenjaren senar Joan Perez Idiakaizkoa bizi zenean merkataritza-harremanak izan zituzten elkarrekin. Martin

Erretereria kapitainak eta Joanes Amasa pilotuak (Pedroren semeak) Joan Perez zenari 56 dukat eta 30 txanpon ordaindu zizkieten, baina, hala ere, Pedrok eta Maria Martinek Joan Perez zenari 154 kintal burdina, Gaztelako 10 erreal eta dukat bat zorretan utzi zizkieten.

Erretereriako Martin Lubeltza eskribauaren aurrean, aurreko abuztuaren leian, geratutako zor hura epe batzuetan ordaintzeko konpromisoa hartu zuten Joan Amasak eta Martin Erretereriak. Domenjari obligazio-agiria eman zioten Pedrok eta Maria Martinek (ikus [XVI. m. (27-IX) 6] agiria).

- 1527-XII-19an, Zestoako Lilin, Blas Artazubiaga eskribauarekin bertako ama-semeak (hau da, Domenja Lili eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa) bildu ziren. Domenjak eta Joan Perezek ziotenez, urtebete inguru lehenago amak semeari ordainagiria eman zion, semeak amaren izenean erabilitako diruak eta ondasunak entregatu egin zituelako. Beduan zeuden burdina lodiko 320 kintal entregatzea falta zitzaion, ordea, Joan Perezi. Geroztik, 320 kintal haiek eta beste 47 kintal eta 47 libra burdina (azken hauek Azpeitiko Martin Perez Erraztikoak emandakoak) Siziliara bidali zituen ama Domenjaren izenean. Hain zuzen Andres Perez Indanetakoa zumaiarraren itsasontzi berrian bidali zituen, Andresen suhi Antonio Lopez Zumaiakoa ontziko patroiz izanik. Sizilian Martin Lizasoren esku geratuko ziren burdinak.

Ondorioz, Domenja amak Joan Perez semeari burdina haien guztien ordainagiria eman zion. Ordainagirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Artzuriaga (probestuordea), Joan Arregi eta Joan Arbestain ("Joan Akoa" ezizenekoa) (ikus [XVI. m. (27-XII) 3] agiria).

Garbi ikusten da lilitarrek merkataritzako sarea Siziliaraino hedaturik zutela. Han zebilen, besteak beste, Martin Perez Idiakaitz-Lilikoa, Domenjaren semea (ikus [XVI. m. (27-VII) 1] agiria).

Egun eta leku berean, eskribaua eta lekuko berak aurrean zirela, Domenja Lilik ordainagiria

3.7. irudia. Arroako Artzuriaga.



eman zien Martin Errenteria kapitainari eta Martin Lizaso zestoarrari. 1525-X-22an, Errenterian, Pedro Amasa eskribauaren aurrean Martin kapitainak 200 dukateko zorra egin zion Domenjari, eta bi urte geroago ordaindu egin zion Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa semearen bidez.

Zestoako Martin Lizasok ere 200 dukateko zorra egin zion Domenjari, Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren aurrean. Kanpoan zebilen Martin Lizasok zorra Joan Perez semeari ordaindu zion. Beraz, Domenjak bere seme Joan Perezi ere 400 dukaten ordainagiria eman zion (ikus [XVI. m. (27-XII) 4] agiria).

Egun eta leku berean, lekuko berak aurrean zirela Blas Artazubiaga eskribauarekin bertako Domenja Lili alarguna eta Olazarraga baserriko Sebastian maizterra bildu ziren. Sebastian Olazarragak lehenbizi Domenjaren senar zenarekin izan zituen tratuak, eta gero Domenjarekin ere bai. Ordura arteko kontuak egin zituzten, eta, biek onartu zuten, Sebastianek 11.340,5 marai zor zizkion Domenjari.

Horrez gain, Sebastianek Olazarraga baserrian, Domenjarentzat erdi bana, ganaduak hazi

eta gobernatzen zituen. Ahuntz eta aker 38 buru zeuzkan guztira, eta horietako lau aker irendu Domenjarenak baino ez ziren (Sebastianek ez zuen parterik). Ardi eta ahari zazpi buru ere bazeuzkan baserrian Sebastianek, eta horietako ahari bat erabat Domenjarena zen. Horiez gain Sebastianek bost behi (bi ernari), bi biga, hiru txahal eta hezitako idi bat zeuzkan; baita txerrima txerrikumeekin ere.

Sebastian Olazarragak ganadu haiengan zeukan partea (erdia) Domenjarentzat hipotekaturik zegoen, lehen aipatutako 11.340,5 maraiak Sebastianek bere partea erosteko zorretan hartu zituelako. Domenjak Sebastiani eskatutako bakoitzean, honek hari ganaduen kontuak argitu eta eman egingo zizkion (ikus [XVI. m. (27-XII) 5] agiria).

- 1527-XII-21ean, Zestoan, bertako Maria Otxoa Altzolaraskoa eta Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa bildu ziren Blas Artazubiaga eskribauarekin. Joan Perezek Maria Otxoari hiru dukat maileguz eman zizkion, eta honek hilabeteko epean itzuliko zion zorra. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Zabala, Martin Ganbara eta Joan Akoa (ikus [XVI. m. (27-XII) 6] agiria).

3.1.3. Zestoako Kontzejuaren gorabeherak eta Iraetako zubia

Kontzejuak aspaldi-aspalditik zuen, erregeek emanda, Zestoako hiribilduko eta Aizarnako elizetako erretore, bikario eta apaizak Iruñeko apezpikuari aurkezteko eskubidea. Aurkeztu ondoren apezpikuak bi eliza haietako karguak ematen zizkien. 1520. urtean, ordea, Fortun Santxez Iraetakoak, bikario izandako Lope Iraetaren ilobak, Erroman Aita Santuarengandik gutunak lortuta Zestoako bikario izaten saiatu zen, Zestoako Kontzejuaren aurkezpen-eskubidea bazter utzita. Orduan, 1520-IX-21ean, Kontzejuak prokuradoreak izendatu zituen Fortun auzitara eramateko (ikus *II ZESTOA XVI. MENDEAN (1501-1520)* liburuko [XVI. m. (20) 32] agiria).

Geroztik Kontzejuak eta Fortun Santxez Iraetakoak artzapezak auzi luzea izan zuten Gipuzkoako korrejidorearen aurrean. Izan ere, Fortunek Aita Santuaren gutunen bidez Aizarnako erretore izendatzea lortu zuen, Zestoako Kontzejuak zituen eskubideak alde batera utzita (ikus, adibidez, [XVI. m. (24) 24], [XVI. m. (24) 25], [XVI. m. (24) 45], [XVI. m. (25) 5], eta [XVI. m. (25) 11] agiriak).

Auziari jarraipena emanez, 1527-I-18an, Azpeitian, Frantzisko Perez Idiakaizkoa eskribauaren au-

rrean Fortun Santxez Iraetakoak, Gipuzkoako artzapezak, ahalordea eman zien Gipuzkoako korrejimenduko Joan Martinez Untzetakoari, Joan Perez Arranibarkoari eta beste zenbaiti, haren prokuradore izan zitezen; baita Valladolidko Anton Orori, Antso Paterinari eta beste zenbaiti ere. Ahalordean lekuko Joan Garagartza, Frantzisko Olaberrieta eta Martin Izagirre izan ziren.

- 1527-IX-17an, Azkoitian, Diego Vargas korrejidoreak epaia eman zuen. Bertan, Zestoako Kontzejuaren alde eginda, ez zuen ontzat hartu Fortun Santxez Iraetakoak eskatuta bezala auzian Madrilgo legea erabiltzea.

- 1527-IX-20an, Azkoitian, Fortun artzapea azaldu zen korrejidorearen aurrean, eta gutun baten bidez epaiaren aurkako arrazoien berri eman zion. Epaiaren aurka gora jotzeko baimena eskatu zion Diego Vargas korrejidoreari, auzia Valladolidko Kantzelaritzan ebatz zezaten.

- 1527-IX-21ean, Iraetan, Fortun Santxez Iraetakoak ahalordea eman zion Valladolidko Kantzelaritzako Anton Orori, Joan Lopez Arrietakoari eta beste zenbaiti, auzian haren prokuradore izan zitezen. Domingo Agirre izan zen eskribaua, eta hauek lekukoak:



3.8. irudia. Aizarnako erretore-etxea.

Joan Orroaga apaiz zumaiarra, eta Debako Pedro Zugasti eta Domingo Baztan.

- 1527-IX-22an, Azkoitian, Fortun Santxez artzapezak Frantzisko Perez Idiakaitzkoa eskribauari prozesuaren kopia eskatu zion, Valladolida bidaltzeko. Bidualkat eman zizkion bere lana egin zezan. Frantziskok zioenez, lanpeturik zebilen, eta nagusien agindua behar zuten lan hura eskatutako epean amaitzeko.

- 1527-X-1ean, Valladolidko Portillo herrian, Fortun artzapezaren izenean Fernando Santxez Bilboko prokuradorea aurkeztu zen, auzia apelazio-mailan Kantzelaritzan jarraitzeko asmoz.

- 1527-X-12an, Azpeitian, Antonio Atxaga prokuradoreak Fortun izenean korrejidoreari prozesuan aurkeztutako agiri original batzuk eskatu zizkion, eta korrejidoreak eman egin zizkion.

- 1527-XI-8an, Olmedo herrian, Zestoako Kontzejuaren izenean Joan Lopez Arrietakoa prokuradorea kexu zen Fortun Santxezen aldeak prozesuaren kopia Kantzelaritzara eramaten ez zuelako. Epaileei beste aldeari agindua bidal diezaioten eskatu zien. Biharamunean bidali zioten delako errege-agindua prozesua eramanez.

- 1527-XI-27an, Azpeitian, Fortun artzapezak korrejidoreari jakinarazi zionez, Zestoako Kontzejuarekin ituna egin zuten auzia konpontzeko, eta agiria korrejimenduan zeukaten. Agiriaren kopia eskatu zion. Bide batez, auziari uko egin ziola jakinarazi zion, hau da, Kantzelaritzan ez ziola jarraipenik emango.

- 1527-XII-9an, Burgosen, Joan Ruiz eskribauaren aurrean Joan Martinez Amilibikoa (Zestoako Kontzejuaren izenean) eta Iraetako Fortun Santxez artzapeza azaldu ziren. Auzia bertan behera utzi zuela eta erretiratu egin zela aitortu zuen iraitarrak (ikus [XVI. m. (27-I) 7] agiria).

- 1527-II-22an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoako Joan Martinez Amilibikoa

eskribaua azaldu zen. Joan Martinezek Zestoako Kontzejuak emandako ahalordea zuen, Fortun Santxez Iraetakoarekin eta Joan Beltran Iraeta anaiarekin zuten auzian. Kontzejuak, erregeak emanda, berea zuten Zestoako eta Aizarnako elizetako patronatua, eta hura defendatuz auzia Errege Kontseiluan zegoen.

Joan Martinez Amilibikoa bere ordezkari prokuradore Zestoako Otxoa Martinez Beduakoa eta Esteban Eztiola izendatu zituen. Lekuko Martin Gartzia Lasakoa, Joan Igartza eta Fernando Olazabal zetoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-II) 9] agiria).

- 1527-VI-1ean, Zestoako udaletxean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Kontzejuak bildu zen. Bertan ziren, besteak beste, honako hauek: Martin Ondalde alkatea, Joan Martinez Amilibikoa fiela, Anton Arretxe zinegotzia, Martin Gartzia Lasakoa, Otxoa Martinez Beduakoa, Fernando Olazabal medikua, Domingo Lizarrats, Joan Martinez Erretzabalgoa, Joan Baltzola, Joan Kamio, Pedro Santxez Errezustakoa, Martin Artzubiaga, Pedro Akoa, Domingo Arretxe, Pedro Garraza, Pedro Gebara, Martin Otxoa Artazubiagakoa, Joan Lopez Zelaikoa eta Joan Igartza.

Gipuzkoako korrejidoreak agindua bidali zion Kontzejuari Fortun Santxez Iraetakoa artzapezarekin zuten auzirako (elizen patronatuei buruzkoa zen) sei pertsona izenda zituzten. Sei zestoar adineko eta ospe onekoak, gaiak zekitenak, izango ziren, eta ahalordea izango zuten zin egin eta Fortun galderari erantzuteko. Kontzejuak sei hauek izendatu zituen: Joan Martinez Amilibikoa fiela, Martin Gartzia Lasakoa, Sebastian Artazubiaga, Domingo Lizarrats, Otxoa Martinez Beduakoa eta Fernando Olazabal.

Ahalorde-agirian lekuko bi apaiz (Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Domingo Urbieta) eta Joan Etxeberria (Martin Gartzia Lasakoaren morroia) izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI)1] agiria).

Bestalde, Joan Beltran Iraetak, Iraetako jaunak, Zestoako eta Azpeitiko Kontzejuei dirua eskatu zien harrizko zubi berria egiteko. Zubia egin eta uholdeak

eraman zuelako, 1527. urtean artean zubirik gabe zeuden, eta auzitan zebiltzan Gipuzkoako korrejidorearen entzutegian (ikus [XVI. m. (25) 42] eta [XVI. m. (26-I) 6] agiriak).

- 1527-VI-15ean, Tolosan, Joan Beltran Iraetaren Migel Aburrutza prokuradoreak Zestoako Kontzejuak bidalitako sei ordezkari egin beharreko galderak aurkeztu zituen:

- 1) Ea Zestoako Kontzejuak Joan Beltrani zubia egiteko 60 dukat agindu zizkion.
- 2) Ea Joan Beltranek zubia eraikitzen 60 dukat baino gehiago gastatu zituen.

Migel Aburrutzak beste galdera hauek ere prestatu zituen:

- 1) Ea ezagutzen zuten Joan Beltran Iraeta, eta ea zuten Iraetako harrizko zubiaren berri.
- 2) Ea zekiten 11 urte lehenago (1516. urtean) harrizko zubia amaituta zegoela.
- 3) Ea zekiten harrizko zubi hartatik, gau eta egun, pertsonak eta abereak (zamatuta eta zamatuta gabe) ibili zirela.
- 4) Ea zekiten harrizko zubia amaituta egonik, uholde handia izan zela, ibaiak enborrak ekarri zituela eta zubia bota egin zuela.

Galderei lehenbizi Zestoako Fernando Olazabal medikuak erantzun zien. 11 urte lehenago Joan Beltranek lehengoaz gain bi zutabe egin omen zituen: bata burdinola aldean, eta bestea Iraetako etxearen aldean. Harrizko hiru arkurekin itxi omen zuen zubia. Ez omen zuen gaina harriz bete zubian, eta petrilik ere ez omen zion egin. Gainera, burdinola aldeko zutabea egiten zepak erabili omen zituen. Zubian pertsonak ibili omen ziren, baina abereak ez. 1521. urte inguruan uholdeak zubia eraman egin omen zuen. Zestoako Kontzejuak 20 dukat eman omen zizkion, beste

20 zubia amaitutakoan ematekoa omen zen, eta beste 20 handik urtebetera.

Joan Martinez Amilibikoa eskribauak eman zituen gero bere testigantzak. Zubia eraikitzen ari zirenean Valladoliden omen zen. Joan Beltranek Zestoako Kontzejuarekin tratua egin zuenean Domingo Arroña, alkate zena, Joan Martinez bera eta beste zenbait ordezkari ibili omen ziren gauzak bideratzen. Joan Martinez Akertzakoa zestoarrak eskatuta, Azpeitiko Legorreta batxilerrak kontratuaren zirriborroa prestatu omen zuen, baina Joan Beltranek ez omen zuen onartu zubia eraiki ondoren zutik mantentzeko obligazioa. Joan Beltranek bere lurretako bideak itxi ahal izatea eskatu omen zuen.

Domingo Zabala zestoarraren txanda izan zen gero. Fernando Olazabalen antzera erantzun zuen; halaber Sebastian Artazubiagak, Martin Fernandez Edarritzagakoak eta Joan Amilibiak.

- 1527-VI-27an, Tolosan, Zestoako eta Azpeitiko Kontzejuen izenean Joan Lopez Etxanizkoak eskabi-dea egin zion korrejidoreari Joan Beltranek, Zestoako Kontzejuak emanda, dirua jaso zuela onar zezan.

Gero auziak Azpeitian eta Azkoitian izan zuen jarraipena korrejidorearen aurrean. Diego Vargas korrejidoreak Donostiako Domingo Altzega eskribauari bi testigantza eskatu zizkion, baina testigantza haiek Arroako Zugasti etxearekin Debako Kontzejuak izandako prozesutik atera zituzten, Joan Beltranen prokuradore Joan Perez Arranibarkoak eskatuta. 1527-IX-20an Azpeitian Pero Gartzia Loiolakoa eskribauak Azpeitiko Kontzejukeoi korrejidorearen jakinarazpena helarazi ondoren atera zituzten. Arroako Joan Arronaren eta Domingo Etxenagusiak aipatutako auzian emandako testigantzen kopia atera zuten.

- 1527-X-5ean, Azkoitian, bi aldean eskabi-deak eta frogak jasota, Diego Vargas korrejidoreak auzia amaitutzat jo zuen (ikus [XVI. m. (27-VI) 10] agiria).

3.9. irudia. Iraetako zubia.



- 1527-VI-30ean, Zestoako udaletxean, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Kontzejua bildu zen. Martin Ondalde alkatearen ordez Domingo Lizarrats zegoen. Joan Martinez Amilibikoa zen fiel eta Joanto Arretxe zinegotzi. Kontzejuak ahalordea eman zion Joan Perez Arretzekoari, biharamunean eta hurrengo egunean (astelehenez eta asteartez) Usarragako Batzar Berezietan prokuradore gisa parte hartu zuen. Lekuko Joan Zuube, Joan Kamio eta Joan Akoa izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI) 23] agiria).

- 1527-VII-7an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Pedro Aizarnateak eta Domingo Arangurenak konpromisoa hartu zuten Aizarnako eta Zestoako elizetako administratzaileei 38 dukat emateko (26 Aizarnakoari eta 12 Zestoakoari); izan ere, enkantean elizei zegozkien hasikin edo primiziak jasotzeko eskubidea lortu baitzuten. Lekuko Domingo Artiga, Pedro Iribarrena eta Martin Amilibia izan ziren.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Pedro Aizarnateak konpromisoa hartu zuen Domingo Aranguren obligazio hartatik aske eta kalterik gabe ateratzeko.

Ondoren, leku eta egun berean Martin Gartzia Lasakoa (Aizarnako elizako administratzailea) eta Joan

Perez Idiakaitz-Lilikoa (Zestoako elizakoa) elkartu ziren. Pedro eta Domingo 38 dukat ordaintzeko obligaziotik aske utzi zituzten. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Joan Martinez Lilikoa abadea, Joan Arretxe eta Joan Zuube (ikus [XVI. m. (27-VII) 7] agiria).

Argitu beharra dago eliza horietako patronatuak Zestoako Kontzejuak zuela, eta gai hori zela eta, Fortun Santxez Iraetakoarekin eta anaia Joan Beltranekin auzitan zebilela.

- 1527-X-27an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean zestoar hauek elkartu ziren: Domingo Zabala alkatea, Martin Ganbara fiela, Domingo Lizarrats, Martin Gartzia Lasakoa eta Joan Martinez Amilibikoa. Martin Gartziak Joan Martinez Amilibikoari urrezko 20 dukat eman zizkion, Valladolida Kontzejua izenean egingo zuen bidaiarako. Han, Kantzelaritza, Joan Martinez Amilibikoak Zestoako Kontzejuak bertako elizetako patronatuaz zituen eskubideak defendatuko zituen, Fortun Santxez Iraetakoaren eta Joan Beltran Iraetaren aurka zeukaten auzian.

Bidaiatik itzultitakoan Joan Martinezek gastuen kontuak aurkeztuko zituen. Lekuko Martin Fernandez Edarritzagakoa, Domingo Amilibia eta Martin Amilibia izan ziren (ikus [XVI. m. (27-X) 1] agiria).

3.1.4. Iraetako Fortun Santxez eta Joan Beltran anaien agiriak

- 1527-III-18an, Tolosan, Antonio Martinez Abaliakoa eskribauaren aurrean honako hauek elkartu ziren: Fortun Santxez Iraetakoa (Gipuzkoako artzapeza) eta Tolosako Migel Aburrutza bere seme Migel eta Joanekin. Migel Aburrutzak eta semeek Nafarroako prokuradore Joan Pogiori (Cesarini kardinalaren ordezkari) 280 dukat nafarreko zorra egin zioten lehenago, Martin Lopez Otazukoa eskribauaren aurrean. Zati bat ordaindua zioten, eta egun hartan azken 60 dukat nafarrak Fortun Santxez Iraetakoari eman zizkioten. Fortun artzapezak ahalordea zuen Joan Pogiorrentzat diru haiek kobratzeko, eta irae-tarrak ordainagiria eman zien aita-seme tolosarrei (ikus [XVI. m. (27-III) 8] agiria).

- 1527-III-19an, Valladolidtik, Kantzelaritzako epaileek auzi baten gutun betearazlea bidali zieten Gipuzkoako agintariei eta erreinuetako gainerakoei. Auzia Zestoako Otxoa Martinez Beduakoaren eta Errezilgo Joan Martinez Bildaingoa eskribauaren artekoa zen. Lehenago Gipuzkoako Calderon lizentziatu eta korrejidorearen aurrean Otxoa Martinez Beduakoak auzia eduki zuen Joan Beltran Iraetarekin eta emazte Maria Perez Idiakaitz-Lilikoarekin Arrozpideko (oraingo Aizarnazabalgo Ozpideko) errota berri bati buruz. Orduan Joan Beltranek agiri bat aurkeztu zuen, Joan Martinez Bildaingoa eskribauak sinatuta, baina Otxoa Martinezek faltsutzat salatu zuen eta Joan Martinez auzi kriminala ipini zion.

Gipuzkoako korrejidoreak Joan Martinez Bildaingo preso hartu eta kartzelan eduki zuen. 1525eko urtarrilean, Joan Beltran Iraetari mesede egiteko, Joan Martinezek agiri faltsua egin omen zuen. Bertan esaten zenez, Martin Santxez Martzanakoak (Beduako jaun izandakoak) Arrozpideko lurretatik egurrak eramateko baimen bat bertan behera utzi omen zion Iraetako jaunari.

Otxoa Martinez Beduakoak zigorra eskatu zion korrejidoreari Joan Martinez Bildaingoaren aurka. Auzian bi aldeek beren testigantzak eta frogak aurkeztu zituzten. Eskribau errejidarrak zioenez, 70 urte zituen eta kartzelan hil egingo zen. Azkenean Del Espinar lizentziatu eta korrejidoreak epaia eman zuen. Joan Martinez eskribauak agiri faltsua egin zuen. Eskuak eta oinak lotuta, abere baten gainean erabiliko zuten herriko kaleetan, pregoilariak errudun zela iragarritz. Gero egur baten gainean zirujau batek aitzoaz eskuineko eskua moztu egingo zion, eta moztuta eskua bistan edukiko zuten jendaurrean. Eskribau-ofi-



3.10. irudia. Iraetako ermita.

zioa ere galdu egingo zuen errezildarrak. Otxoa Martinez Beduakoari eragindako gastu eta kalte guztiak ere Joan Martinezek ordainduko zituen.

Joan Martinez Bildaingoak gora jo zuen epaiaren aurka, eta auziak, apelazio-mailan, jarraipena izan zuen Valladolidko Kantzelaritzan. Alde bakoitzak bere arrazoiak eta testigantzak aurkeztu zituen, eta gorteko alkateek epaia eman zuten: Gipuzkoako korrejidoreak emandako epaia ona zen, baina eskuineko eskuaren orde, eskuko hatz lodia moztuko zioten eskribauari. Valladoliden egindako auzi-gastuak alde bakoitzak bereak ordainduko zituen.

Bi aldeek aurka egin zioten epaiari, eta Kantzelaritzako epaileek, berrikuspen-mailan, azken epaia eman zuten: aurreko epaiak deuseztatu egin zituzten. Joan Martinez Bildaingo ez zen gehiago eskribau-lanetan arituko, baina ez zioten eskurik edo hatzik moztuko (ikus [XVI. m. (27-III) 9] agiria).

- 1527-IV-15ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarengana Joan Beltran Iraeta eta Grazia Iraeta bildu ziren. Grazia Iraetak Maria Ortiz Iraetako izeba zenaren oinordeko gisa, Zestoako Elizkaleko etxe baten erdiaren jabe zen. Beste erdia Iraetako jaunarena (Joan Beltranena) zen. Etxe osoa bietako baten esku uzteko gaia erabakitzearen, Martin Ibañez Zubiaurrekoa zestoarra izendatu zuten arbitro. Martinek bere epaia eman zuen. Etxe osoa Joan Beltran Iraetarentzat izango zen, baina Joan Beltranek Graziari, hurrengo garizumako Pazko egunetik hasita urtebeteko epean, honako hauek ordainduko zizkion: 34 kintal burdina barratan, 10 kintal burdina pletinatan eta 50 florin arrunt. Joan Beltranek obligazio-agiria eman zion Graziari.

Joan Beltran Elizkaleko etxera sartu eta jabetza bere gain hartu zuen. Etxeak mugakide hauek zituen: alde batean Joan Beltranen beste etxe batzuk, beste aldean belena (orain "karkaba" deitzen dena) eta hiribilduko kale batetik bestera zihoan kalea (zeharkakoa), aurreko aldean Elizkalea, eta atzeko aldean Maria Perez Lizarraraskoaren eta senar Blas Lasaoren etxea.

Saldutako etxe erdiari zegozkion betebeharrak (Maria Ortiz Iraetakoak testamentuan agindutakoak, etab.) Grazia Iraetak ordainduko zituen. Agirian lekuko hauek izan ziren: Fernando Olazabal medikua, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Domingo Agirre (ikus [XVI. m. (27-IV) 8] eta [XVI. m. (27-IV-9) agiriak]).

-1527-IV-23an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauak ordainagiria idatzi zuen. Zestoako Martin Indok hamabi dukat ordaindu zizkion Joan Beltran Iraetari, lehenago zor hori egin ziolako, eta iratarrak ordainagiria eman zion. Lekuko Fortun Santxez Iraetako artzapeza, Domingo Agirre eskribaua eta Joan Perez Arretzekoa zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-IV) 11] agira).

- 1527-VI-10ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, batetik Maria Perez Potzuetakoa alarguna eta Pedro Gorotzene errezildarra, eta bestetik Joan Beltran Iraeta bildu ziren. Maria Perezek eta Pedro Gorotzenek konpromisoa hartu zuten, Joan Beltrani 37,5 dukat ordaintzeko. Egun hartan 12,5 dukat eman zizkieten, handik urtebetera beste 12,5, eta handik urtebetera azken 12,5 dukatak. Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Artzuriaga, Domingo Aspe eta Joan Zuube.

Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Joan Beltranek Maria Perez Potzuetari (Lope Potzuetaren alargunari) ordainagiria eman zion. Ordurarte izan zituzten harremanen kontuak egin eta zorrak kitaturik geratu ziren. Bi obligazio-agiri, ordea, ordainagiritik at geratu ziren: lehentxeago aipatutako 37,5 dukatekoa, eta Martinon Egañak eta Lope Potzuetaren zenak egindakoa, 10 dukatekoa (ikus [XVI. m. (27-VI) 7] agiria).

- 1527-VII-8an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Beltran Iraetak ahalorde-agiria egin zuen. Joan Perez Arretzekoari eman zion, Joan Zuuberi, Martin Zuuberi eta Joan Amilibiari zorra eta katilu bat kobra ziezaien. Auziaren jarraipena egingo zuen Joan Perezek, baina zorraren ordainagiria Joan Beltranek berak emango zuen. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Esteban Artazubiaga, Pedro Gebara eta Joan Egurtza (ikus [XVI. m. (27-VII) 9] agiria).



3.11. irudia.
Zestoa. Bedamako
Errotabarrenaren
aurriak.

3.1.5. Sebastian Artazubiagaren tratu eta agiriak

- 1527-II-24an, Zestoa, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrera Sebastian Artazubiaga zestoarra eta Aiako Martin Irureta eta Migel Segurola azaldu ziren. Sebastianek Zestoako Kontzejuari basoak erosi zizkion, Arrobarreneko errotaren eta Ezkurroako saroiaren artekoak, egur-ikatz egiteko. Bi aiarrek Sebastiani han 800 karga ikatz egingo zizkieten: 400 karga hurrengo Domu Santu egunerako, eta beste 400 handik urtebeterako. Ikatz-karga bakoitzagatik 60 sos ordainduko ziren Sebastianek.

Egun hartan Sebastian Artazubiagak urrezko 22 dukat eman zizkien, eta 400 karga egindakoan emango ziren falta zena. Beste 400 kargak ere aiarrek ikatza egin ahala ordainduko zizkien. Ikatz faltagatik Sebastian Artazubiagak burdinola (Bekola) geldirik edukitzen bazuen, kaltea aiarrek ordainduko zioten. Kontratuan lekuko Pedro Artzubiaga, Joan Akoa eta beste zestoar bat izan ziren (ikus [XVI. m. (27-II) 11] agiria).

Badirudi kontratu hau egun batzuk geroago berritu egin zutela. Horregatik, 1527-III-3an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Sebastian Artazubiaga (Blasen osaba) eta hiru aiar elkartu ziren. Hauek ziren

aiarrak: Martin Irureta (Martin Murgiaren semea), Joan "Zuri" (Martin Iruretaren anaia) eta Migel Segurola. Sebastianek Zestoako Kontzejuari Errotabarrena eta Ezkurroa bitarteko mendien egurra erosi zion, eta han aiarrek 700 karga ikatz egingo zituzten Sebastianentzat. Karga bakoitza 14 kanako zakukoa izango zen.

Lanak hurrengo Domu Santu egunerako eginda edukiko zituzten, eta karga ikatzagatik 60 sos kobratu zituzten ikazkinek; izan ere, Sebastianek egun hartan txer ordaindu zien 700 kargen balioa. Mendietan 700 karga baino gehiago ateratzen bazituzten, gainerakoa lanak amaitutakoan ordainduko ziren Sebastianek (ikus [XVI. m. (27-III) 4] agiria).

- 1527-VI-10ean, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribaua aurrean zela, Pedro Etxeberria eta Sebastian Artazubiaga zestoarrak elkartu ziren. Pedro burdinolako tiratzaile zen lanbidez, eta Sebastianek Bekolarako kontratua egin zion. Hurrengo San Migel egunetik hurrengo ekaineko San Joan egunera arte egingo zuen lan. Pedrok bere lanbideko tresnak jaso zituen, baina kintal bat burdina zorretan utzi zion Sebastianek.

Kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Arrona (semea), Martin Legarda eta Esteban Aranguren (ikus [XVI. m. (27-VI) 9] agiria).

- 1527-VI-29an, Ibañarrietan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Sebastian Artazubiaga eta Joan Belez Beduakoa bildu ziren. Joan Belez Ibañarrietan Debako partean bizi zen. Sebastianek eta Joanek egun hartara arteko harremanen kontuak egin zituzten, eta Joanek Sebastiani zor ziona ordaindu zion. Ondorioz, Sebastianek ordainagiria eman zion Joani.

Lekuko Joan Zabala, Lantzarote Bedua (Zumaiako partean bizi zen) eta Fernando Sorazabal zestoarra izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI) 22] agiria).

- 1527-VI-30ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek bildu ziren: alde batetik Aiako Martin eta Joan Irureta anaiak eta Migel Segurola, eta, bestetik, Zestoako Sebastian Artazubiaga. Aiarrek zestoarrari Ezkurroako mendietan 500 karga ikatz egingo zizkieten hurrengo Domu Santu egunerako. Karga bakoitza 14 kanako zakukoa izango zen. Ikatz guztia Bekolako burdinolaraino garraiatuta utziko zioten.

Sebastian Artazubiagak urrezko hogeitun dukat eman zizkien ordainetan. Lekuko honako hauek izan ziren: Martin Legarda, Joan Isurola, Anton Altzolarats eta Joanes Zulutibar.

Jarraian, egun eta leku berean, Sebastian Artazubiagak obligazio-agiria eman zion Joan Zuube mazolari zestoarrari, "Arotzarte" goitzenekoari, hurrengo Eguberri egunerako urrezko 14 dukat emateko. Martin Irureta aiarrak zor zizkion Joan Zuuberi dukat haiek, baina Sebastianek zor hura bere gain hartu zuen. Lekuko Joan Arano, Martin Legarda eta Joan Akoa izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI) 24] agiria).

Egun berean, Aizarnan, Zestoako Sebastian Artazubiagak tratua egin zuen Aiako Martin eta Joan Egia aita-eme ikazkinekin, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Aiarrek zestoarrari 300 karga ikatz egingo zizkieten, Zestoako Ezkurroan, hurrengo Domu Santu egunerako. Karga bakoitza 14 kanako zakukoa izango zen eta 58 sos balioko zuen.

Sebastian Artazubiagak aita-seei 200 karga orduntxe ordaindu zizkien. Azken 100 kargaren balioa aurreko 200 kargak entregatutakoan ordainduko zien. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Jofre Ibañez Altzolaraskoa, Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Domingo Urbieta (ikus [XVI. m. (27-VI) 26] agiria).

- 1527-VIII-18an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Martin Lamiarriaga aiarra eta Sebastian Artazubiaga zestoarra bildu ziren. Martinek Sebastia-

3.12. irudia. Zestoako Lizarrarats (orain Lizarraitz).



ni hurrengo Eguberri egunerako Altzolarats eta Aiako Lamiarriaga arteko mendietan 112 karga ikatz egingo zizkion. Karga bakoitza 14 kanako zakukoa izango zen. Sebastianek aiarrari ikatzaren balio osoa ordaindu zion. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Amilibikoa, Pedro Aizarnatea eta Bizente Ezenarro (ikus [XVI. m. (27-VIII) 8] agiria). Aia aldean garai hartan euskal mitologiako “laminak” leku-izenen bidez ere aipatzen ziren, bistakoa denez.

- 1527-IX-15ean, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Sebastian Artazubiaga zestoarra eta Martin Azpiazu zumaiarra bildu ziren. Martinek Sebastiani obligazio-agiria eman zion hurrengo Eguberrietan bost dukat ordaintzeko. Gainera, Bekolan urtebetez urtzaile gisa lan egingo zuen, Sebastianek hura dena ordaindu egin ziolako. Lekuko Joan Martin Indo, Martin Legarda eta Pedro Aizarnatea izan ziren (ikus [XVI. m. (27-IX) 4] agiria).

- 1527-X-13an, Sebastian Artazubiagak eta Domingo Lizarrarats zestoarrek Bilboko Martin Arbolantxa Arana merkatariari 500 kintal burdina pletinatan emateko konpromisoa hartu zuten. Hurrengo urteko martxoko Andre Mariaren egunean Beduako errenterian. Burdina haien balioa aurrez kobratu zuten bi zestoarrek¹.

3.1.6. Martin Ondalderen eta Domingo Lizarraratsen agiriak

- 1527-I-2an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean honako hauek elkartu ziren: batetik Zestoako Martin Ondalde, eta, bestetik, Zumaiako Pedro Narbaza eta Hernaniko Joanes Arela?. Martini beste biek 194 karga ikatz egingo zizkioten Urdanetako mendietan maiatzeko Pazko egunerako. Karga bakoitza 14 kanako zakukoa izango zen.

Martin Ondaldek orduan ordaindu zien ikazkineigero egingo zuten lana: 8 dukat eta 32 txanpon, hau da, 40 sos karga bakoitzeko. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Iribarrena, Pedro Etxeberria eta Fernando Sorazabal (ikus [XVI. m. (27-I) 2] agiria).

- 1527-II-13an, Zestoako Ibañarrietan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean honako hauek azaldu ziren: alde batetik Maria Ruiz Narruondokoa eta Joan Perez Etxezarretakoa semea, Zumaiako eta Debako auzotarrak, eta, bestetik, Domingo Lizarrarats eta Joan Dominguez Areitzagakoa, Zestoako eta Debako auzotarrak. Azken bi hauek Fernando Sorazabalen bazkide eta ordezkari ere baziren.

Maria Ruizek eta semeak beste hirurei Narruondoko burdinola bi urterako (hurrengo ekaineko San Joan egunetik hasita) errentan emango zieten. Burdinolan ateratako hamabi kintal burdinatik bat errenta ordaintzeko izango zen. Errenta martxoko Andre Mariaren egunean ordainduko zen.

Maria Ruizek eta semeak burdinola lanerako prest zegoela emango zieten San Joan egunean. Egoera onean egongo ziren presa, aldaparoa, gurpilak, gabia, ingudea, boga, palankak, haizebide edo toberak, hauspoak eta gainerakoak. Haiek konpontzea burdinolaren jabeen kontura izango zen. Maizterrek errentatik deskontatuta konponketak egin ahal izango zituzten. Maizterrak Narruondoko etxearen lurretan ibili ahal izango ziren, burdinolako gaiak garraitzeko.

Maria Ruizek eta semeak urtero konponduko zituzten burdinolako hauspoak. Ohea ere utziko zieten maizterrei, bertan olagizonek lo egin zezaten. Gainera, ur gutxi zegoenean, dena burdinolarako hartuko zuten, eta errota geldirik egongo zen. Kontratuan lekuko hauek izan ziren: Pedro Erkisketa, Joan Belez Beduakoa eta Joan Aitzaga (ikus [XVI. m. (27-II) 2] agiria).

- 1527-IV-10ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Zestoako Martin Ondalde eta Zumaiako Domingo Intxaurregi elkartu ziren. Maiatzeko Pazko egunerako Domingok Martini 200 karga ikatz egingo zizkion Urdanetako mendietan. Karga bakoitza 14 kanako zakukoa izango zen.

Martinek Domingori karga bakoitzeko 43 sos ordaindu zizkion, hau da, urrezko 7 dukat. Obligazio-

agirian lekuko hiru zestoar izan ziren: Fernando Olazabal, Martin Artzuriaga eta Aizarnatea baserriko biztanle bat (ikus [XVI. m. (27-IV) 5] agiria).

- 1527-IV-28an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Zestoako Martin Sastarrain eta Domingo Lizarrarats bildu ziren. Martinek eta Domingok egun hartara arteko kontuak garbitu zituzten, eta Martinek Domingori urrezko hamabi dukat zor zizkiola erabaki zuten. Martinek Domingori hurrengo Eguberri egunerako ordainduko zion zorra.

Obligazio-agirian lekuko honako zestoar hauek izan ziren: Pedro Ezenarro, Fernando Sorazabal eta Joango Zuube (ikus [XVI. m. (27-IV) 14] agiria).

- 1527-IV-23an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Aiako Joan Zozaberro eta San Joan Alzola Zestoako Martin Ondalderekin elkartu ziren. Joan eta San Joanek Aiako Alzolako mendietan Martin Ondalderi 200 karga ikatz (14na kanako zakuko neurrikoak) egingo zizkieten. Ikatzak non entregatu eta noizko egin ere zehaztu zuten. Martinek orduantxe karga bakoitzeko erreal bat ordaindu zien, eta aiarrek obligazio-agiria eman zioten. Agirian lekuko hiru zestoar izan ziren: Joan Igartza, Anton Arretxe eta Joan Paginolarrea (ikus [XVI. m. (27-IV) 12] agiria).

- 1527-V-2an, Zestoan, Joan Arraio eta Domingo Lizarrarats Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean azaldu ziren. Joan Arraio Gallari baserrian bizi zen, Azpeitiko partean (Zestoako mugan), eta lehendik obligazio-agiria emana zion Domingori 17 dukat zor zizkiolako. Geroztik Joanez Domingori ikatza egin zion, baina Domingok ikazkintzako lan guztia ordaindu zion.

Beraz, Joan Arraiok aitortu egin zuen lehengo 17 dukateko obligazio-agiria indarrean zegoela. Lekuko Pedro Garratza, Joan Arretxe eta Martin Gabiria zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-V) 1] agiria).

- 1527-V-7an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Joan Mendaro eta Domingo Lizarrarats bildu ziren. Joan Mendaro Zestoako Zabaleta baserrian bizi zen, eta Domingo Lizarraratsek urrezko 5 dukat eta 39 txanpon maileguz eman zizkion. Joanez Domingori hurrengo ekaineko San Joan egunean itzuli zion zorra. Lekuko Joan Martinez Olotzagakoa kontularia, Martin Otxoa Artazubiagakoa eta Aiako Miguel Gonzalez Seguiolakoa izan ziren (ikus [XVI. m. (27-V) 4] agiria).

- 1527-VI-30ean, Zestoan, Domingo Lizarrarats edo Artigak eta Domenja Ezenarro (Ezenarro-

3.13. irudia. Etorrazar baserria.



goikoak) kontratua egin zuten Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Domingok Domenjari 12 behi eman zizkion, Ezenarron erdi bana hazteko. Ongi zaindu eta haziko zituen Domenjak. Ganaduen erdiagatik Domenjak Domingori 5 dukat eta 6 txanpon zor zizkion, eta diru hura ganaduen lehen irabazietatik ordainduko zion. Bitartean ganaduak hipotekaturik geratuko ziren Domingoren alde.

Kontratuan lekuko Joan Kamio, Joan Igartza eta Pedro Egaña zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI) 25] agiria).

- 1527-VIII-1ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Domingo Etorra eta Domingo Lizarrarats elkartu ziren. Etorrakoak Lizarraraskoari urrezko 14 dukat zor zizkion. 10 dukateko zorra berak egin zion, eta beste 4 dukatekoa Domingoren aitak eta Katalina Etorra amaginarrebak.

Zor osoa Domingo Etorrak hurrengo San Migel egunerako ordainduko zion. Lekuko lau zestoar hauek izan ziren: Joan Otxoa Artazubiagakoa, Domingo Urbietta, Martin Fernandez Edarritzagakoa eta Lope Amilibia (ikus [XVI. m. (27-VIII) 1] agiria).

- 1527-VIII-11n, Arroan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrera hauek agertu ziren: batetik Zestoako Domingo Lizarrarats, eta, bestetik, Zumaiako Domingo Zulaika eta Domingo Etxabe ikazkinak. Hauek zestoarrari 200 karga ikatz egingo zizkieten, Arteagako saroian, hurrengo Domu Santu egunerako. Karga bakoitza 14 kanako zakukoa izango zen.

Domingo Lizarraratsek karga bakoitzeko 40 sos ordaindu zien; urrezko 8 dukat guztira. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Sebastian Artazubiaga, Martin Ondalde eta Martin Itziar (ikus [XVI. m. (27-VIII) 7] agiria).

- 1527-VIII-18an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Ondaldek obligazio-agiria eman zion Ana Ipintzari. Ana, hain zuzen, Fernando Olazabalen emaztea zen, eta maileguz 10 kintal burdina eman zizkion Martini. Epe baten barruan ordainduko

zion zorra Martinek. Lekuko Pedro Akoa (edo Ezenarro), Martin Aranburu eta Zumaiako Joan Orroaga apaiza izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VIII) 10] agiria).

- 1527-IX-8an, Arroan zen Blas Artazubiaga eskribaua. Harekin elkartu ziren Domingo Olazabal getariarra eta Domingo Lizarrarats, Joan Domingez Areitzagakoa eta Fernando Sorazabal zestoarrak. Getariarrak zestoarrei ikatza egingo zien Arteagako saroian. Domingo Ozpidek bere bazkidearekin zati batean egingo zuen ikatza, eta Domingo Olazabalek gainerako guztian. Getariarrak ikatz guztia inauterietarako egingo zuen.

Karga bakoitza 14 kanako zakukoa izango zen, eta 40 sos balioko zuen. Egun hartan 6 dukat ordaindu zizkieten Domingo Olazabali, eta gainerakoa hurrengo Eguberrietan emango zioten. Lekuko hauek izan ziren: Martin Artzuriaga, Joan Errementari eta Martin Ariztondo, Debako eta Zestoako biztanleak (ikus [XVI. m. (27-IX) 2] agiria).

3.1.7. Zubiaurre, Bedua, eta Baltzolako tratuak

- 1527-I-11n, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Debako Joan Baltzolak eta Domingo Arretxe harginak kontratua egin zuten. Joanek Baltzola etxearen lurretan, Artzabaletan, baserria eraiki nahi zuen, eta hormak Domingo Arretxek egingo zizkion. Gutxi gorabehera 75 “estado” neurriko hormak izango ziren guztira, eta hormen lodiera hiru arra bete pasakoa izango zen. Altuerak ere zehaztu zituzten.

Hormak eraikitze behar zen karea Joanek hornituko zion Domingori. Harria Domingok aterako zuen baserri ondotik Artzabaletan, eta Domingok bidea egingo zuen gero Joanek harri hura baserriraino garraiatzeko. Hormak eraikitze behar zen gainerako guztia Domingok hornituko zuen. Domingok bere lanak hurrengo ekaineko San Joan egunetik hasita bi urteren buruan amaituko zituen. Hormen “estado” bakoitzeko 25 txanpon kobratuko zituen Domingo Arretxek (ikus [XVI. m. (27-I) 4] agiria).

- 1527-III-12an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarengana Arroan bizi zen Joan Santxez Zelaikoa azaldu zen. Joaneke ahalordea eman zien Maria Martin emazteari eta Zestoako Fernando Olazabali eta Joan Perez Arretxeokari.

Joan Santxez Zelaikoak auzia zuen Maria Perez Baltzolakoarekin eta honen aitarekin, eta ahalordearen bidez Joanen prokuradore izango ziren aipatutako hirurak. Lekuko Esteban Artazubiaga, Domingo Arretxe eta Pedro Gebara izan ziren (ikus [XVI. m. (27-III) 5] agiria).

- 1527-IV-10ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Maria Perez Zubiaurrekoa alarguna elkartu zen. Mariaren senar zenak (Joan Martinez Zubiaurrekoak) Zestoako elizari ardi batzuk utzi zizkion. Ondorioz, Mariak urrezko 4 dukat ordainduko zizkien elizako administratzaileei hurrengo garizumako Pazko egunetik urtebetera. Obligazio-agirian lekuko Martin Ondalde, Martin Artzuriaga eta Pedro Aizarnatea zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-IV) 6] agiria).

- 1527-V-5an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarengana bi zestoar hurbildu ziren: Jakobo Baltzola eta Pedro Iribarrena. Jakobok Pedrori zamarako zaldia saldu zion urrezko sei dukatean, eta Pedrok Jakobori urte-

bete barru ordainduko zion. Salerosketan lekuko hauek izan ziren: Domingo Arretxe, Martin Arano eta Anton Lizarrarats (ikus [XVI. m. (27-V) 2] agiria).

-1527-V-9an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauak obligazio-agiria idatzi zuen. Zestoako Joan Belez Ibañarrietakoak (gure ustez Beduakoak) zenbait txanpon zor zizkion Zumaiako Marina Garratzari, honek hari balioa ardotan eman ziolako. Zestoarrak hurrengo ekaineko San Joan egunerako ordainduko zion zorra. Lekuko Fernando Olazabal, Martin Ondalde eta beste zestoar bat izan ziren (ikus [XVI. m. (27-V) 6] agiria).

1527-V-18an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Debako Maria Ortiz Atagurengoa alarguna eta Zestoako Maria Oliden azaldu ziren. Maria Ortiz hain zuzen Pedro Migelez Olidengoren emazte izan zen, eta Maria Oliden Pedroren alaba eta Jakobo Baltzolaren emazte zen. Maria Oliden 25 urte bete gabea zelako, Fernando Olazabal medikua zuen legezko zaintzaile. Maria Oliden zen Pedro zenaren oinordeko unibertsal.

Maria Ortiz eta Maria Oliden auzitan zebiltzan Gipuzkoako korrejidorearen aurrean Pedro Migelez zenaren ondasunengatik. Maria Ortizek zioenez, ezkondata egon zen denboraldian Pedro senarrak ira-

3.14. irudia. Baltzola baserria.



bazi handiak izan zituen ondasunetan, eta haien erdia berari zegokion, eta ez Maria Olideni.

Auziak saihestearren, bi aldeek tratua egin zuten: Maria Olidenek urrezko 40 dukat eman zizkion Maria Ortiz Atagurengoari, eta honek uko egin zion Pedro zenaren ondasunetan izan zezakeen parteari, nahiz eta 40 dukat baino gehiagokoa zela jakin. Maria Ortizek ordainagiria eman zion Maria Olideni.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Martinez Ibañetakoa eskribaua, Pedro Artzubiaga, Anton Arretxe eta Domingo Amilibia (ikus [XVI. m. (27-V) 12] agiria).

- 1527-V-27an, Liliko errotaren ondoan, Blas Artzubiaga eskribauarengana Jakobo Baltzola zestoarra eta Domingo Ruiz Goikoleakoa eta Martin Edarritzaga debarrak elkartu ziren. Jakobok beste biei lau urteko mandoa bere basta eta uhalekin saldu zien 12 dukatean. Sei dukat hurrengo abuztuko Andre Maria-ren egunerako ordainduko zizkioten, eta beste seiak handik urtebeterako.

Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joanto Amezketa, Joan Martinez Goitikoa (Joantoren morroia) eta Joan Etorra (ikus [XVI. m. (27-V) 19] agiria).

- 1527-VI-2an, Zestoan, Blas Artzubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: batetik Martin Gartzia Lasakoak, eta, bestetik, Joan Asu getariarra eta Martin Ibañez Zubiaurrekoa zestoarra. Joan Asuk eta Martin Ibañezek Getariako Garatetik Oikiako Agirre baserriaren gaineko hariztiraino 145 beso hareharri (186 pieza harri) eramango zizkioten hilaren amaiera baino lehen.

Martin Gartzia Lasakoak garraioaren kostua ordaintze ordaindu zien. Horrez gain, Martin Gartziak urrezko sei dukat maileguz eman zizkien Joani eta Martin Ibañezi. Hauek hari urtebeteko epean ordainduko zioten zorra. Fernando Olazabal medikua, Joan Lizarrarats eta Domingo Aspe izan ziren lekuko.

Jarraian, Joan Asu getariarrak konpromisoa hartu zuen obligazio hartatik Martin Ibañez Zubiaurrekoa onik ateratzeko; izan ere, zorra osorik getariarrak egin baitzuen (ikus [XVI. m. (27-VI) 2] agiria).

- 1527-VI-10ean, Zestoan, Blas Artzubiaga eskribauarekin Joan Esnal zumaiarra eta Grazia Martinez Zubiaurrekoa alargun zestoarra elkartu ziren. Joanek Graziari 30 dukateko zorra egin zion, eta honek hari ondasunak exekutatu egin zizkion.

Egun hartan Joan Esnalek obligazio-agiria eman zion Graziari hurrengo San Pedro egunerako (ekainaren 29rako) 15 dukat ordaintzeko. Lekuko Martin Artzuriaga, Martin Gabiria eta Martin Sastarrain izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI) 8] agiria).

- 1527-VI-17an, Zestoan, Blas Artzubiaga eskribauarengana Arroako Pedro Otalora eta Zestoako Jakobo Baltzola hurbildu ziren. Jakobok Pedrori mandarra saldu zion, eta Pedrok Jakobori hurrengo urteko ekainean, San Joan egunean, urrezko 6 dukat emango zizkion. Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Lizarrarats, Joan Gebara eta Sebastian Lizarrarats (ikus [XVI. m. (27-VI) 13] agiria).

- 1527-VI-24an, Liliko olatxoan, Blas Artzubiaga eskribauarekin Domingo Egurtza eta Joanto Amezketa elkartu ziren. Domingo Aitola baserrian maizter zegoen, eta Zestoako Joanto Amezketari 4 dukat zor zizkion. Aldi berean, Domingori Larrazkanda baserriko Joan Urrutzeta maizterrak 4 dukat eta 286 marai zor zizkion, Martin Ibañez Jausorokoak emandako eskubideari esker.

Beraz, Domingok Joantori hain zuzen Joan Urrutzetari 4 dukat eta 286 marai kobratzeko eskubidea eman zion. Lau dukat Joantorentzat izango ziren, eta 286 marai Joantok Joan Baltzolari emango zizkion.

Agirian lekuko Zestoako Joan Akoa, Joan Kamio, Joango Arretxe eta Azpeitiko Martin Luarbe (Nuarbe)? izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI) 17] agiria).

3.15. irudia.
Olidenaundigoikoa.



- 1527-VII-14an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean, kandela piztuta enkantea egin zuten. Aizarnako bikariotzako urte hartako hamarrenak jasotzeko eskubidea Martin Indori eman zion Kontzejuak, 18 dukat eta 2 erreal eskaini zituelako. Inauterietarako Joan Martinez Amilibikoa fieleri emango zizkion diruak.

Kontzejuak egindako enkantean, fielaiz gain Domingo Artiga alkateordea, Anton Arretxe zinegotzia eta beste zenbait zeuden. Lekuko Joan Igartza, Joan "Zuri" Zuube eta Joan Erretzabal izan ziren.

Jarraian, Martin Indok konpromisoa hartu zuen Martin Ibañez Zubiaurrekoa obligazio hartatik onik ateratzeko (ikus [XVI. m. (27-VII) 11] agiria).

- 1527-VII-23an, Fernando Olazabal zestoarra Tolosan zegoen Joan Zorrobiaga eskribauarekin. Fernando Zestoako Maria Migelez Olidengoaren legezko zaintzailea zen, hain zuzen Maria 25 urte bete gabea zelako. Fernandok Maria Migelezen eta Zestoako Jakobo Baltzolaren arteko ezkontza presatu zuen, baina ezin zuen Zestoan egon kontratua egin eta sinatzeko. Ondorioz, baimena eman zion Maria Migelez Olidengoari Jakoborekin ezkontza-kontratua egin eta sinatzeko.

Lekuko honako hauek izan ziren: Andres Aginaga lizentziatu zumaiarra, eta Joan Otazu eta Joan Iriondo tolosarrak (ikus [XVI. m. (27-VII) 19] agiria).

- 1527-VII-28an, Zestoako elizan, Blas Artazubiaga eskribauak ezkontza-kontratua idatzi zuen. Senarra Jakobo Baltzola zen, Fernando Baltzola zenaren eta Grazia Martinez Zubiaurrekoa alargunaren semea. Emaztea, berriz, Maria Migelez Olidengoa zen, eta Pedro Migelez Olidengoa eta Domenja Zuube izan zituen guraso. Maria Migelezek baimena zuen, legezko zaintzaileak emanda, kontratu hura egiteko. Ezkontzara ondasun hauek ekarri zituen: Zestoako Elizkalean zuen etxea bere arreo eta hornidura guztiarekin, Arretxeazpitan zeukan sagastia eta zubi aldeko portale ondoan zeukan baratzea.

Grazia Martinez Zubiaurrekoak dote gisa 120 dukat, 19 sagarrondoko sagastia (Arretxeazpitan zegoena), zilarrezko katilu bat eta 3 ohe oso eman zituen. 60 dukat hurrengo Eguberri egunerako ordainduko zituen, eta beste 60 dukatak hurrengo San Joan egunerako. Grazia Martinezek fidatzaile gisa anaia Martin Ibañez Zubiaurrekoa aurkeztu zuen.

Grazia Martinezek aipatutako ondasun guztien gozamenaren erdia edukiko zuen bizi zen artean. Go-

zamen hari senar-emazteen alde uko egiten bazion, ezkonberriek zaindu eta hornituko zuten Grazia ama. Ezkontza seme-alabarik gabe hausten baldin bazen (edo seme-alabak testamentua egiteko adina izan gabe hiltzen baziren), ezkontzara ekarritako ondasun bakoi-tza bere enborrera itzuliko zen urtebete baino lehen.

Grazia Martinezek konpromisoa hartu zuen Martin Ibañez anaia obligazio hartatik onik ateratzeko. Zestoako elizan Esteban Aisoro bikarioak ezkondu zituen Maria eta Jakobo.

Jarraian Maria Migelez Olidengoak zin egin zuen kontratuaren aurka ez zuela 25 urte bete gabea zela edo beste ezer argudiatuko. Lekuko Joan Beltran Iraeta, Joan Perez Idiakaitz-Lilikoa eta Joan Martinez Amilibikoa eskribaua izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VII) 23] agiria).

- 1527-VIII-10ean, San Lorenteko ermitaren ondoan, Beduako etxeen gaineko muinoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Otxoa Martinez Beduakoa eta bertako Ana Agote serora bildu ziren. Egun hartan, San Lorente egunez, jendeak ermitan guztira 5 txanpon eta marai bateko limosna utzi zuen. Diru hura Otxoa Martinezek jaso zuen, ohitura zenez, ermitako patronatua berea zuelako. Diruak Ana Agote serorari eman zizkion ermita mantentzeko, eta Anak gastuen berri emango zion Otxoa Martinezi. Lekuko Pedro Ausoroetxea zestoarra, Debako Kristobal Artzubia-ga, gaztea, eta Lantzarote Bedua zumaiarra izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VIII) 5] agiria).

3.1.8. Fernando Olazabalen eta Fernando Sorazabalen agiriak

- 1527-II-13an, Zestoako Ibañarrietan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Joan Domingez Areitzagakoa azaldu zen. Auzia zuen Otxoa Azkuerekin?, eta ahalordea eman zion honako hauei, prokuradore izan zitezten: Fernando Sorazabali, Joan Perez Areitzagakoari, Gipuzkoako korrejimenduko Antonio Atxagari eta beste zenbaiti, eta Valladolidko Kantzelari-tzako Anton Orori eta beste zenbaiti. Arroakolan Joan

Domingezen ikatzarekin egindako burdina jaso ahal izango zuten.

Ahalordean lekuko hauek izan ziren: Martin Ibia eta Joan Iraeta zestoarrak eta Fernando Aizarnazabal (ikus [XVI. m. (27-II) 10] agiria).

- 1527-IV-28an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Debako Fernando Sorazabal eta Zestoako Pedro Ezenarro azaldu ziren. Pedrok Fernandori mandoa eta urrezko 20 dukat eman zizkion. Ordainetan Fernandok Pedrori hurrengo Eguberri egunerako 33 kintal burdina pletinatan ipiniko zizkion Beduako ala Narruondoko errenterian, zerga guztiak ordainduta. Obligazio-agirian lekuko Domingo Lizarrarats, Martin Sastarrain eta Joango Zuube zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-IV) 15] agiria).

-1527-V-19an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Domingo Zabala eta Fernando Olazabal medikua bildu ziren. Gipuzkoako Probintziak Domingo Zabala igorpen-alkate izendatu zuen, eta Irun-Urantzura (Behobiara) joan behar zuen, muga igarotzen zuten gaiak zaintzera.

Ondorioz, ahalordea eman zion Fernando Olazabali, haren auzi eta ondasunak, Domingo herritik kanpo zen bitartean, kudea zitzan. Ahalordean lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Santxez San Miliangoa, Joan Akoa eta Pedro Garratza (ikus [XVI. m. (27-V) 13] agiria).

- 1527-VI-8an, Urbietako burdinolan (hau da, Txiribogan), Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean hauek azaldu ziren: Joan Esnal zumaiarra eta Joan Kamio zestoarra. Joan Kamiok ahalmena zuen Joan Esnalek Fernando Olazabal medikuarekin zeukan zorra kobratzeko. Berez zorra Martin Arlaureta zumaiar-rak egin zion (20 kintal burdinakoa) eta Joan Esnal Martinen fidatzaile zen.

Ondorioz, Gipuzkoako korrejidorearen aginduz Joan Esnali ondasunak exekutatzeko hasi zitzaizkion. Joan Esnalek, orduan, 20 kintalak eta auzi-gastuak (94

3.16. irudia. Aizarnako Sorazabal baserria.



txanpon) ordaindu egin zituen. Beraz, Joan Kamiok Joan Esnali ordainagiria eman zion; baita hura guztia Martin Arlauretari kobratzeko eskubidea ere. Agirian lekuko hauek izan ziren: Bartolome Txiriboga eta Joan Bengoetxea zestoarrak, eta Martin Diaz Mirubikoa zumaiarra (ikus [XVI. m. (27-VI) 5] agiria).

- 1527-VIII-20an, Zestoako zubian, Blas Artazubiaga eskribauarengana honako hauek hurbildu ziren: batetik Aranazko (gure ustez Azpeitiko Aranatz erre-kako) burdinolako Pedro Zelaeta olagizon zumarragarra, eta, bestetik, Fernando Sorazabal zestoarra eta Fernando Arantza arroarra. Fernando Arantzak, Fernando Sorazabalen izenean, lanerako mandoa saldu zion Pedro Zelaetari 17 dukatean. Hurrengo 15 eguneko epean Pedrok 4 dukat ordainduko zituen, eta beste 13ak hurrengo martxoko Andre Mariaren egunean. Lekuko Fernando Arantza arroarra, Domingo Arretxe “Amezqueta” eta Joango Arretxe (Joan Arretxeren semea) zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VIII) 12] agiria).

- 1527-VIII-25ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin honako hauek bildu ziren: Martin Ibañez Zubiaurrekoa, Joan Martinez Akoakoa, Fernando Sorazabal eta Joan Domingez Areitzagakoa. Joan Martinezen izenean Martin Ibañezek Fernandori eta Joan

Domingezi Akoako Aurrekoetxearen gaineko mendia saldu zien. Urrezko 50 dukatekoa zen Martin Ibañezek kobratutako prezioa. Diru hura bi alditan jaso zuen Martinek: lehenago 26 dukat eta egun hartan 24.

Martin Ibañezek Joan Martinezi 50 dukatak eman zizkion, eta Fernando Sorazabali eta Joan Domingez Areitzagakoa ordainagiria eman zien. Lekuko Domingo Arretxe hargina, Joan Egurtza eta Anton Arretxe izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VIII) 15] agiria).

3.1.9. Amezketarren, lasaotarren eta amilibitarren gorabeherak

- 1527-II-20an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Ana Lasao azaldu zen, Beltran Iraetaren alarguna. Anak zioenez, Beltran zenak Errenteriako Joanes Pontikari bi dukat eta erdiko zorra egin zion, eta zor hura Anak bi urteko epean ordainduko zion. Obligazio-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Jakobo Baltzola, Martin Artzuriaga eta Joan Artzuriaga (Martinen semea) (ikus [XVI. m. (27-II) 5] agiria).

- 1527-III-12an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauak salmenta-kontratua idatzi zuen. Saltzailea Joan Mendaro zen, Zabaleta baserriko maizterra, eta eros-tuna Ana Lasao, baserriaren jabea. Joanek eta Anak

erdi bana zituzten Zabaleta baserrian sei txerri, txerrama, hamabost arkume eta sei antxume. Hortik at, Joan Mendarok berea zuen erlauntza bat.

Joanek Anari ganaduengan zuen partea (% 50) eta erlauntza bi dukatean saldu zizkion. Lekuko Pedro Artzubiaga, Joango Iraeta eta Joango Ibañeta izan ziren.

Hurrengo hilean, apirilaren 28an, Ana Lasao salmenta deuseztatutzat jo zuen; izan ere, Joan Mendarok bi dukatak itzuli egin zizkion Anari. Lekuko Martin Itziar, Pedro Gesalaga eta Martin Legarda izan ziren (ikus [XVI. m. (27-III) 6] agiria).

- 1527-III-13an, Zestoan, Kamio eta Artiga etxeen artean Blas Artzubiaga eskribauarekin Ana Lasao eta Maria Sebastian Artiga (Martin Olazabalen emaztea) bildu ziren. Hango lursail baten goiko aldea Ana Lasarena zen, eta beheko aldea Maria Sebastianena. Lursailaren erdian mugarriak ipinita, trukea egin zuten: hau da, Ana Lasarentzat beheko aldea geratu zen, eta Maria Sebastianentzat goiko aldea. Lekuko Joan Lizarrarats, Domingo Amilibia eta Joango Baltzola izan ziren.

Egun batzuk geroago, hilaren 17an, Maria Sebastianen Martin Olazabal senarrak ontzat eman zuen emazteak Ana Lasarekin egindako trukea. Joan Lizarrarats, Pedro Artzubiaga eta beste zestoar bat izan ziren lekuko (ikus [XVI. m. (27-III) 7] agiria).

- 1527-IV-5ean, Zestoan, Blas Artzubiaga eskribauak obligazio-agiria idatzi zuen. Bertan zioenez, Joan Otxoa Artzubiagakoa apaizak urrezko 4 dukat eta 17 txanpon maileguz eman zizkion Joanto Amezketari. Honek hurrengo ekaineko San Joan egunerako itzuliko zizkion. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Artzuriaga probestuordea, Joango Artzuriaga semea eta Martin Arano (ikus [XVI. m. (27-IV) 1] agiria).

- 1527-IV-7an, Zestoan, Blas Artzubiaga eskribauaren aurrean Joanto Amezketa eta Zestoako Martin Arano elkartu ziren. Martinek Joantori zor bat kobratu behar zion: 10 dukat Martin Ibañez Zubiaurrekoaren

izenean. Joantok, berriz, beste batzuk kobratu behar zizkien Martin Aranori eta emazteari: Getariako Frantzisko Estellaren izenean sei dukat ken lau txanpon, Joan Otxoa Artzubiagakoaren izenean bi dukat eta 7 txanpon, Maria Ierroaren izenean 13 txanpon, urdaien 3 txanpon eta Joantoren emaztearen 17 txanpon.

Elkarrekiko zorren emaitza 45,5 txanponekoa zen Joanto Amezketaren alde. Kopuru hura Martin Aranok orduantxe ordaindu zion, eta Joantok ordainagiria eman zion. Lekuko Zestoako Domingo Lizarrarats, Sebastian Artzubiaga eta Martin Igartza izan ziren (ikus [XVI. m. (27-IV) 2] agiria).

-1527-IV-22an, Zestoan, Blas Artzubiaga eskribauak ordainagiria idatzi zuen. Zestoako Kontzejuko Joan Martinez Amilibikoa fielak Pedro Etxeberriari eta honen fidatzaile Joan Amilibiari eman zien; izan ere, Pedrok Aizubiko erroten errentagatik 3.000 marrai ordaindu baitzizkion. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Martin Artzuriaga, Domingo Amilibia eta Martin Amilibia (azken biak Joan Martinez Amilibikoaren semeak) (ikus [XVI. m. (27-IV) 10] agiria).

- 1527-VI-10ean, Zestoan, Blas Artzubiaga eskribauak Potzuetas baserriaren errentamendu-kontratua idatzi zuen. Jabea Maria Perez Potzuetakoa zen, Lope Potzuetaren alarguna, eta maizterra Martin Amilibia hargina. Aurreko urteko Domu Santu egunetik hasita, hamar urterako eman zion Maria Perezek baserria errentan.

Maizterrak Potzuetako etxea bere lur, soro, sagasti eta abarrekin erabiliko zuen; baita etxeko bi upel ere, bertako beste biak Maria jabearentzat utzita. Martinek urtero urrezko sei dukateko errenta ordainduko zion Mariari Domu Santu egunean; baita abuztuan lau otarrakada gaztaina eta imina bat intxaur ere. Errentamendu-kontratuan lekuko Domingo Aspe, Joan Zuu-be eta Martin Artzuriaga zestoarrak izan ziren.

Egun eta leku berean, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Martin Amilibiak Maria Perez Potzuetakoari obligazio-agiria egin zion. Mariak Martini 12 dukat eta 39 txanpon maileguz eman zizkion ganadua

3.17. irudia. Amilibiak
Pagiolarretik.



erosteko, eta Martinek hiru epetan itzuliko zion zorra: handik urtebetera 4 dukat eta 13 txanpon (herena), handik urtebetera bigarren herena eta handik urtebetera hirugarren herena (ikus [XVI. m. (27-VI) 7] agiria).

- 1527-VII-6an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zestoan bizi zen Joanto Amezketa agertu zen. Aitola baserriko Domingo Egurtza maizterrak Joanto Amezketa lau dukat zor zizkion. Aldi berean, Larrazkandako Joan Urrutzetak Domingori 4 dukat eta 286 marai zor zizkion. Joantok Domingori ordainagarria eman zion, baina Joan Urrutzetari 4 dukat eta 286 marai kobratuko zizkion: 4 dukatak beretzat eta 286 marai Joan Baltzolari emateko.

Ordainagirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Pedro Garratza, Martin Itziar eta Joan Egurtza (ikus [XVI. m. (27-VII) 6] agiria).

- 1527-VIII-24an, Oikian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Zumaiako Martin Diaz Mirubikoa eta Zestoako Joan Amilibia elkartu ziren. Joan Martinez Ibañetako eskribauaren aurrean lehenago Joane 25 kintal burdinako zorra egin zion Martin Diaz, baina zestoarrak zumaiarrari zor hura ordaindu egin zion. Beraz, Martin Diazek ordainagarria eman zion Joan Amilibiari. Lekuko, besteak beste, Sebastian Artazu-

biaga eta Martin Txiriboga izan ziren. (ikus [XVI. m. (27-VIII) 14] agiria).

- 1527-IX-11n, Zestoan, Joanto Iriarte-Amezketan Blas Artazubiaga eskribauarekin bildu zen. Joantok ahalordea eman zien Gipuzkoako korrejimenduko Antonio Atxagari eta Joan Perez Arranibarkoari, haren auzietan prokuradore izan zitezten. Ahalorde-agirian lekuko zestoar hauek izan ziren: Esteban Artazubiaga, Martin Artzuriaga eta Pedro Altzolarats (ikus [XVI. m. (27-IX) 3] agiria).

3.1.10. Mirubitarren, olidendarren eta potzuetarren agiriak

Zestoako Domenja Mirubiak koinatu Joan Mirubiarekin eta honen emazte Maria Joangorekin Mirubiko etxeko seniparteagatik Gipuzkoako korrejimenduan eta Valladolidko Kantzelaritzan auzi luzea izan zuen, eta Domenjaren seme Joan Atxagak Zestoako Joan Martinez Ibañetako eskribauarekin ere bai, honek eskritura faltuak egin zituelako (ikus [XVI. m. (26-I) 10] agiria).

1527. urtean Domenjaren auziak Valladoliden jarraipena izan zuen. 1526-I-9an, Kantzelaritzan, Anton Oro prokuradoreak Joan Mirubiaren aldeko idatzia aurkeztu zuen. Gipuzkoako korrejidoreak Domenja



3.18. irudia. Aizarnako eliz ataria.

Mirubiaren alde emandako epaia ez omen zen zuzena, eta epaia deusezta zezaten zenbait argudio azaldu zituen: Gipuzkoan aspalditik etxea maiorazkoari osorik uzteko ohitura zegoela, Joan Martinez Ibañetakoak agiria ongi idatzi zuela, etab.

- 1527-I-15ean, Valladoliden, Kantzelaritzakoek epaia eman zuten: bi aldeak auzitara onartu zituzten, eta 50 eguneko epea zuten frogatu behar zutenaren eskriturak eta testigantzak ekartzeko.

- 1527-III-19an, Domenjaren prokuradoreak epaileei eskea egin zien: alegia, Gipuzkoako korrejimenduko Frantzisko Perez Idiakaizkoa eskribauak prozesuko eskritura originalak eman zitzala, faltsuak ziren ala ez frogatzeko.

Harrezkero auziak ez zuen jarraipenik izan, eta amaitu gabe (epairik gabe) bere horretan geratu zen (ikus [XVI. m. (27-I) 3] agiria).

- 1527-V-7an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauak obligazio-agiria idatzi zuen. Arroako Joan Olidenek Irao baserrian bizi zen Pedro Otarorari hezitako idia erosi zion. Prezioa zazpi dukat ken hamabi txanpon eta erdikoa zen. Joanek Pedrori hurrengo Eguberri egunean ordainduko zion. Agirian lekuko Joan Igartza, Joan Lopez Etxanizkoa eta Joan Otxoa Ondarrekoa (Orioko eskribaua) izan ziren (ikus [XVI. m. (27-V) 5] agiria).

- 1527-V-13an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarengana Arroako Joan Oliden eta Iraetako Joan Martinez Igartuakoa olagizona bildu ziren. Joan Martinezek bi dobloi (edo lau dukat) eman zizkion mailleguz Joan Olideni, eta honek hurrengo garizumako Pazko egunerako itzuliko zizkion. Lekuko Sebastian Zabalaga getariarra, Martin Artzuriaga eta Martin Arano zestoarrak izan ziren.

Jarraian, leku berean, Arroako Aituben bizi zen Martin Egañak lau dukat jaso zituen mailleguz Joan Olidenek emanda. Hurrengo inauterietarako ordainduko zizkion. Lekuko Getariako Sebastian Zabalaga eta Zestoako Martin Itziar eta Martin Arano izan ziren (ikus [XVI. m. (27-V) 8] agiria).

- 1527-VI-8an, Zestoako Urbietan, Blas Artazubiaga eskribauarekin hauek elkartu ziren: batetik Martin Diaz Mirubikoa zumaiarra, eta, bestetik, Zestoako Domingo Aranguren eta Tomas Egaña. Bi zestoarrek zumaiarrari 200 karga ikatz eman zizkieten, eta zumaiarrak ordainagiria eman zien zestoarrei. Lekuko Joan Amilibia, Joan Bengoetxea eta Martin Igartza izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI) 4] agiria).

- 1527-VII-14an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauak obligazio-agiria idatzi zuen. Bertan zeuden Domingo Aranguren eta Maria Perez Potzuetakoa. Urte hartan Aizarnako eta Zestoako elizei hasikin edo primiziengatik zegokiena jasotzeko eskubidea kandelapiztuta egindako enkantean lortu zuten. Hurrengo San Martin egunerako 35 dukat ordainduko zizkieten Aizarnako eta Zestoako elizetako maiordomo edo kudeatzaileei: bi heren Aizarnakoei eta heren bat Zestoakoei. Domingoren eta Maria Perezen fidatzaileak

Pedro Iribarrena eta Martin Indo ziren. Hain zuzen Domingok eta Maria Perezek konpromisoa hartu zuten aipatutako fidatzaielak obligazio hartatik onik eta kalterik gabe ateratzeko.

Lekuko Joan Martin Indo, Joan Otxoa Artazubiagakoa eta Pedro Ausoroetxea izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VII) 12] agiria).

3.1.11. Bekolako tratu eta agiriak

Aurreko urtean, 1526-II-8an Azpeitiko Joan Martinez Olotzagakoa kontulariak eta Bekolako Maria Lopez Altzolaraskoak ezkontza-kontratua egin zuten (ikus [XVI. m. (26-II) 4] agiria). Orduan Joan Martinez kontulariak urrezko 1.500 dukat dote gisa epeka emateko obligazioa hartu zuen.

- 1527-III-19an, Aizarnan, Joan Martinez Amilibikoa eskribauarekin honako hauek bildu ziren: Errezilgo Martin Ruiz Errekondokoa, Zestoako Sebastian Artazubiaga, Jofre Ibañez Altzolaraskoa, Joan Otxoa Gorosarikoa eta Blas Artazubiaga, eta Getariako Beltran Untzeta (hau Joan Martinez Untzetakoa anaiaren ordezkari ere bazen). Joan Martinez Olotzagakoa kontulariak epeka ordainduko zuen dotea nola banatu erabaki zuten. Dotea 1.500 dukat gehi 50 dukatekoa zen, hau da, guztira 1.550 dukatekoa.

1526. urteko San Joan egunean kontulariak ordaintzeko 400 dukatak honela banatuko zituzten: Martin Ruizi, Beltran Untzetari eta Joan Martinez anaia getariarrari 40 dukat, Martin Ruizi beste 50 dukat, Joan Martinez getariarrari beste 24 dukat, Beltran Untzetari beste 24, Joan Lopez Altzolaraskoari (kontulariaren koinatuari) 20 dukat, Sebastian Artazubiagari 100 dukat (Maria Ruiz Arrazubikoaren eta Joan Lopez semearen parteagatik, Joan Ruiz Arrazubikoaren oinordeko zirelako), Jofre Ibañezi 60 dukat, Esteban Artazubiagari 20 dukat, Joan Otxoa Gorosarikoa 11 dukat, eta Sebastian Artazubiagari beste 22 dukat gehi beste 9 dukat.

1527. urteko San Joan egunez Joan Martinez Olotzagakoak emango zituen 200 dukatak honela bana-

tuko ziren: Grazia Lopez Altzolaraskoari 50 dukat, Sebastian Artazubiagari 62,5 dukat (Joan Ruiz Arrazubikoaren parteagatik), Jofre Ibañezi 22 dukat, Esteban Artazubiagari 9 dukat, Joan Otxoa Gorosarikoa 4,5 dukat, Martin Ruiz Errekondokoa 18,5 dukat, Sebastian Artazubiagari 10 dukat, Joan Martinez Untzetakoa 9 dukat, Beltran Untzetari 8 dukat eta Blas Artazubiagari 6,5 dukat.

1528. urteko San Joan egunean kontulariak eman- goko zituen 200 dukatak honela banatuko ziren: Grazia Lopez Altzolaraskoari 50 dukat, Sebastian Artazubiagari 62,5 dukat (Joan Ruiz Arrazubikoaren parteagatik), gehi beste 10 dukat, Jofre Ibañezi 22 dukat, Esteban Artazubiagari 9 dukat, Joan Otxoa Gorosarikoa 4,5 dukat, Martin Ruizi 18,5 dukat, Joan Martinez Untzetakoa 9 dukat, Beltran Untzetari 8 dukat eta Blas Artazubiagari 6,5 dukat. 1529. urteko banaketa 1528. urtekoaren berdina izango zen.

1530. urteko banaketa honela egingo zuten: Sebastian Artazubiagari 105,5 dukat (Aiako Arrazubikoaren parteagatik) eta beste 8,5 dukat, Jofre Ibañezi 25,5 dukat, Esteban Artazubiagari 10 dukat, Joan Otxoa Gorosarikoa 6 dukat, Martin Ruizi 23 dukat, Joan Martinez Untzetakoa 11, Beltran anaiari 7 eta Blas Artazubiagari 3,5.

1530. urtean ordainduko zituen Joan Martinez kontulariak azken 100 dukatak eta gainerako 50 dukatak. Banaketa honela egingo zuten: Sebastian Artazubiagari 83,5 dukat (Aiako Arrazubikoengatik), Jofreri 8 dukat, Esteban Artazubiagari 11,5 dukat, Joan Otxoa Gorosarikoa 5 dukat eta 5 txanpon, Martin Ruizi 14 dukat eta 36 txanpon, Sebastian Artazubiagari 8 dukat eta 43 txanpon, Joan Martinez Untzetakoa 6 dukat eta 35 txanpon, Beltran Untzetari 2 dukat eta 35 txanpon, eta Blas Artazubiagari 9 dukat eta 9 txanpon.

Agirian lekuko Zestoako Joanes Ipintza eta Joan Otxoa Artazubiagakoa apaizak eta Martin Olazabal aiarra izan ziren (ikus [XVI. m. (27-III) 10] agiria).

- 1527-IV-7an, Zestoan, Joan Martinez Amilibikoa eskribauaren aurrean Zumaiako Joan Lopez Artea-



3.19. irudia. Bekolako burdinola.

gakoa eta Getariako Joan Martinez Untzetakoa azaldu ziren. Aurreko martxoaren 9an, Aizarnan, Joan Martinez Olotzagakoa kontulari azpeitiarrak Bekolara ezkondu zenean agindutako dotea nola banatu erabaki zuten Sebastian Artazubiagak, Martin Rruiz Errekondokoak, Beltran Untzetak eta beste zenbaitek.

Joan Lopez zumaiarrak eta Joan Martinez getariarrak onartu egi zuten 1.550 dukateko dotea banatzeko erabakitakoa. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Arretxe, Joan Akoa eta Martin Gabiria (ikus [XVI. m. (27-IV) 4] agiria).

- 1527-IV-30ean, Azpeitian, Joan Akemendi eskribauaren aurrean hauek bildu ziren: alde batetik Joan Martinez Olotzagakoa kontularia, eta, bestetik, Joan Martinez Untzetakoa getariarra eta Blas Artazubiaga zestoarra. Getariarrak anaia Beltran ere ordezkatzeko zuten, eta zestoarrak bere osaba Sebastian Artazubiaga ere bai. Kontulariak biei 199 dukat eman zizkien doteko lehen ordainketaren zati gisa. Dukat haiek nola banatu ziren ere zehaztu zuten. Arrazubiko Joan Lopez Arteagakoak mando emegatik kontulariari zor zizkion 22 dukatak ere kontuan hartu zituzten.

Joan Martinez Untzetakoak eta Blas Artazubiagak ordainagiria eman zioten Joan Martinez Olotza-

gakoari. Lekuko Joan Otxoa Urangakoa, gaztea, Migel Areso maisua eta Fernando Edarritzaga izan ziren.

- 1527-V-2an, Azpeitian, Joan Akemendi eskribauaren aurrean Martin Ruiz Errekondokoa errezildarra agertu zen. Donostiako Jofre Igartzaren ordezkari ere bazen. Joan Martinez Olotzagakoak emanda 97,5 dukat jaso zituen: 50 dukat Martinentzat berarentzat, eta 47,5 dukat Jofre Ibañez Altzolaraskoarentzat. Jofre Ibañezek gero Jofre Igartzari emango zizkion. Martin Ruizek ordainagiria eman zion kontulariari. Lekuko hauek izan ziren: Joan Ruiz Errekondokoa, Joan Loidi eta Fernando Edarritzaga.

Egun eta leku berean, eta eskribaua bera aurrean zela, Joan Martinez Untzetakoak eta Martin Ruiz Errekondokoak 40 dukat jaso zituzten kontulariak emanda. Haiek honi ordainagiria eman zioten. Lekuko honako hauek izan ziren: Martin Jauregi, Domingo Ierroa eta Joan Lopez Zuolakoa azpeitiarrak.

- 1527-VI-13an, Azpeitian, Joan Akemendi eskribauarengana Martin Olazabal maisu aiarra azaldu zen. Martin Ruiz Errekondokoak Joan Martinez Untzetakoak eta Beltran Untzetak 40 dukateko zorra egin omen zioten Mateo Legartza eskribau zenaren aurrean. Zorrenen zati bat zordunek ordaindu zioten,

eta beste zatia Joan Martinez Olotzagakoa kontulariak. Beraz, Martin aiarrak ordainagiria eman zion. Lekuko hauek izan ziren: Martin Alonso Lexaratzu, Martin Betelu eta Joaniko Ondarra barberua.

- 1527-X-15ean, Azpeitian, Joan Akemendi eskribauaren aurrean Zestoako Jofre Ibañez Altzolarakoa azaldu zen. Jofrek Joan Martinez Olotzagakoak emandako 60 dukat jaso zituen, eta haien ordainagiria eman zuen. 60 dukat haietatik 47,5 Martin Ruiz Errekondokoaren bidez jaso zituen. Lekuko honako hauek izan ziren: Frantzisko Olaberrieta, Joan Martinez Gerrentzurikoa eta Joan Errekondo (ikus [XVI. m. (27-III) 10] agiria).

- 1527-VI-19an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Ramus Zabala eta Maria Perez Altzolarats-Portalekoa bildu ziren. Mariak Ramusi zelako mandoa eman zion, eta Ramusek Mariari mandakoa. Prezio-diferentzia 4,5 dukatekoa zen, eta Ramusek Mariari hurrengo urteko San Joan egunean ordainduko zion. Lekuko Joan Gebara, Pedro Gebara eta Pedro Artzubiaga zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI) 15] agiria).

3.1.12. Beste zenbait zestoarren agiriak

- 1527-III-6an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarengana Zestoako Joan Zuube "Arotzarte" mazolaria hurbildu zen. Ahalordea eman zien Martin Zulaika zestoarrari eta Gipuzkoako korrejimenduko Antonio Atxagari eta beste zenbait prokuradoreri. Hain zuzen Martin Irureta aiarrak urrezko 14 dukat zor zizkion Joani, eta haiek kobratu behar zizkieten; baita auzitara joanda ere.

Ahalorde-agirian zestoar hauek izan ziren lekuko: Martin Ondalde, Martin Artzuriaga eta Joan Otxoa Artazubiagakoa (ikus [XVI. m. (27-III) 3] agiria).

- 1527-III-25ean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Domingo Arretxe "Amezketak" eta Martin Arzallus elkartu ziren. Martinek Domingori hamar dukat zor zizkion. Horrez gain bien artean egun hartara

arte izandako hareman guztien kontuak egin zituzten. Martinek Domingori bi dukat utzi zizkion zorretan, eta gainerako guztiagatik Domingok ordainagiria eman zion. Lekuko zestoar hauek izan ziren: Domingo Aspe, Joan Artsuaga eta Joan Arretxe (ilus [XVI. m. (27-III) 11] agiria).

- 1527-IV-28an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Aiako Domingo Urrutia eta Zumaiako Joan Orroaga apaiza (hau ama Maria Martin Etxaberen ize-nean) elkartu ziren. Domingo Urrutiak Maria Fernandez Aizarnazabalgoarengandik 160 florin arrunt eta auzi-gastuak kobratzeko zeuzkan. Maria Fernandezek, ordea, Aizarnazabalgo etxea eta ondasunak Joan Orroagari eta Maria Martin amari saldu zizkien.

Horiek horrela, Joan Orroagak Maria Fernandez zorreratik eta auzi-gastuengatik urrezko 20 dukat ordaindu zizkion Domingo Urrutiari, eta honak Joan apaizari eta Maria Martin amari eman zizkien zorra Maria Fernandezi kobratzeko eskubide guztiak. Agirian lekuko Fortun Santxez Iraetakoa (Gipuzkoako artzapeza), Joan Urbieta eta Joan Amezketak zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-IV) 13] agiria).

-1527-V-6an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrera bi itziartar azaldu ziren: Santuru Erreten eta Maria Artzuriaga (Pedro Goioren emaztea). Mariaren senarra ez zegoen bertan. Hala ere, Mariak zioenez, etxea hondatu egin zitzaion, eta Santuru Erretenek 12 dukat eta 36 txanpon eman zizkion. Ordainetan, Mariak Santururi prezio horretan Itziarko Ibia etxearen ondoan zeukan hariztia saldu zion. Maria Artzuriagak aukera izango zuen hurrengo bi urteetan hariztia berreskuratzeko, Santururi 12 dukat eta 36 txanpon ordainduta.

Salmenta-agirian lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Martin Artzuriaga (Mariaren anaia), Domingo Zabala eta Anton Arretxe. Jarraian, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Maria Artzuriagak zin egin zuen salmenta-agiriak zioenaren aurka ez zela joango (ikus [XVI. m. (27-V) 3] agiria).



3.20. irudia. Elgoibarko Zabala dorrea.

-1527-V-14an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Pedro Perez Marigortakoa azaldu zen. Pedro Elgoibarko alkate zen, eta Markinako Domenja Eguzkitzarekin auzia zuen, apelazio-mailan, Zestoako Kontzejuan. Pedro Perez alkateak ahalordea eman zien Elgoibarko Joan Martinez Arriolakoari, Domingo Arriola semeari, Joan Martinez Marigortakoari eta Pedro Zabalari; baita Zestoako Martin Zuuberi eta Joan Arretxeri ere. Ahalordean lekuko Joan Ezkioaga, Martin Artzuriaga eta Domingo Zarautz izan ziren.

Leku, egun eta eskribau beraren aurrean, Pedro Zabala azaldu zen. Elgoibarko Maria Perez Umansorokoak auzia zuen Markinako Domenja Eguzkitzarekin, eta Pedro Zabalak ahalordea zuen prokuradore izateko. Pedrok bere ordezkoi Joan Perez Arretxekoa eta Martin Zuube izendatu zituen. Agirian lekuko Pedro Akoa eta Joan Zuube zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-V) 9] agiria).

- 1527-V-22an, Zestoan, Martin Perez Kortazarkoa testamentua egiten ari zela, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean aitortpena egin zuen. Hark zioenez, Martinek eta Domenja Ausoroetxeak Maria Lopez Ibarrolakoari 25 kintal burdina ordaindu zizkieten, eta Domenjak beste 25 kintal ordaindu zizkion Joan Perez Akoakoari ("Mendoza" goitizenerakoari). Kintal

haiek, ordea, berez Altzolarats jauregikoek ordaintzekoak ziren; izan ere, zorra Fernando Gebara zenak egin zuen, eta Domenjaren aita (Joan Urbietta "Agure") fidatzaile izan zen.

Zenbait urte lehenago Aizarnako plazan, Intzina etxearen atarian, Martin Perez Kortazarkoa lekuko zela, Fernando Gebara zenak eta Joan Urbietak kontuak egin zituzten. Fernandok aitortu zuenez, zorra berea zen. Pedro Egañarekin eta Joan Atristainekin izandako harremanen kontuak ere egin zituzten.

Domenja Ausoroetxeak Blas Artazubiaga eskribauari aitortpenaren testigantza eskatu zion. Lekuko Martin Legarda, Bartolome Txiriboga eta Fernando Arreitza izan ziren (ikus [XVI. m. (27-V) 17] agiria).

Egun berean, Zestoako Kortazar baserrian, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Martin Perez Kortazarkoak testamentua egin zuen. Hildakoan Aizarnako elizan hobiratuko zuten. Hiletak eta gainerako elizkizunak ohi bezala egingo zizkieten. 30na meza emango zituzten Aizarnan Domingo Urbietak eta Joan Otxoa Artazubiagakoa apaizak.

Ongintzarako limosna hauek utzi zituen: gatibu zeuden kristauak askatzeko zilarrezko erreala, Aizar-

nako elizari dukat bat, Santa Engraziari zilarrezko erreala eta berdin Aizarnazabalgo San Migeli.

Ondoren, kobratzeko zeuzkan zorren zerrenda egin zuen. Ausoroetxetik 44 dukat zeuzkan jasotzeko, Joan Urbietaren zorragatik Maria Lopez Ibarrolakoari eman zizkiolako. Ausoroetxetik beste 33 kintal burdina ere jasotzeko zeuzkan, bertako seme Martin Ondalderen dote gisa Ondalde etxeari eman zizkiolako. Beste 32 florin arrunt ere jasotzeko zeuzkan Ausoroetxetik, Joan Urbietaren ordezi batengatik Maria Perez Ibarrolakoari eman zizkiolako.

Domenja Ausoroetxeak zor haien ordain gisa 8 dukat eta Nafarroako 10 dukat, 13 txanpon eta 5 kintal burdina eman zizkion. Martin Perezi Joanes Kutrulo ilobak 6 dukat zor zizkion, eta Getariako Domikutza Berrosoetak 65,5 florin. Domingo Ezurik 6 txanpon zor zizkion otar batzuegatik.

Kortazarko ondasunen eta ganaduen administratzaile Domenja Kortazar emaztea izendatu zuen. Alaba Domenja Kortazarri, Joan Martin Indoren emazteari, lehen seniparteagatik emandako 30 dukatez gain beste 10 emango zizkieten. Alaba Grazia Kortazarri, Domingo Lizasoetaren emazteari, 35 dukat emango zizkieten seniparteagatik (lehendik beste 5 emanak zeuzkan). Katalina Kortazar alabari, Joan Ieribarren emazteari, beste 28 dukat emango zizkieten (lehendik beste 12 emanak zeuzkan).

Testamentu-betearazleak hauek izango ziren: Martin Ondalde, Martin Legarda eta Domenja Kortazar emaztea. Testamentuan lekuko Bartolome Txiriboga, Pedro Ausoroetxea eta Fernando Arreitza izan ziren (ikus [XVI. m. (27-V) 18] agiria).

- 1527-VI-6an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria Martinez Lilikoa zestoarra (Domenja Liliren lehengusu propioa) eta Joan Gorostiaga zumaiarra azaldu ziren. Joaneke Mariari zazpi behi eta lau txahal saldu zizkion urrezko 35 dukatean, eta Mariak kopuru hura hantxe bertan ordaindu zion. Joan Gorostiagak eta Zestoako Joan Sorazabalek ber-

meak eman zituzten salmenta haren aurka inor joaten bazen gastu guztiak haien kontura izan zitezten. Salerosketa-agirian lekuko hauek izan ziren: Domingo Aspe, Joango Oliden eta Martin Zubiaurre.

Egun eta leku berean, eskribau eta lekuko berak aurrean zirela, Maria Martinez Lilikoak Joan Sorazabali 8 behi eta 5 txahal eman zizkion (7 behi eta 4 txahal Joan Gorostiagari 35 dukatean erositakoak ziren). Ganaduek guztira 40 dukat balio zuten, eta Joaneke erdi bana haziko zituen, zortzi urtean, San Joan egunetik hasita, Sorazabal baserrian. Joaneke 20 dukat eman behar zizkion Mariari, eta ordaindu bitartean ganaduak hipotekatuta egongo ziren Maria jabearen alde (ikus [XVI. m. (27-VI) 3] agiria).

- 1527-VI-16an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarengana Joan Apategi eta Joan Zuube hargina hurbildu ziren. Joan Zuubek Joan Apategiri guztira 19 dukat eta 19 txanpon eman zizkion maileguz (17 dukat urretan eta beste 2 dukat eta 19 txanpon haragi, ogi, gari eta sagardotan).

Joan Apategik mailegua hurrengo Eguberri eguneko itzuliko zion. Lekuko Joan Igartza, Pedro Etxeberria eta Martin Lizaso izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI) 11] agiria).

Egun berean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin honako hauek elkartu ziren: Zestoako Osana Erretzabal, honen alaba Maria San Joan Aizarna eta Maria Alemania. Maria Alemaniak zortzi urte zeramatzan Zestoan aipatutako ama-alaben zerbitzari. Maria zerbitzariak Zestoatik kanpo joan behar zuen, eta Osana eta alabarekin kontuak egin zituen. Zerbitzariak bere lanaren truke soinekoak eta arropak jaso zituen, eta horrez gain dobloi bat (bi dukat) kobratuko zuen ama-alabengandik. Dobloia zorretan utzi zuten Osanak eta Maria San Joaneke.

Agirian lekuko Joan Kamio, Joan Akoa eta Joango Iraeta izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI) 12] agiria).

- 1527-VI-18an, Alkizako burdinolan, Blas Artazubiaga eskribauak Katalina Artiga zestoarraren



3.21. irudia.
Hondarribiko
Guadalupeko erretaula.

testamentua idatzi zuen. Katalina Artiga ohean gaixo zegoen, eta ondoan zuen Esteban Akertza senar zestoarra.

Katalinak lehenbizi ongintzarako limosnak eman zituen: kristau gatibuak askatzeko (2 erreal), Guadalupeko Andre Mariari (2 dukat), Zestoako elizari (3 erreal), Aizarnako elizari (2 erreal), Santa Engraziari (2 erreal), Arroako San Esteban elizari (2 erreal), Alkizako San Martini (3 erreal), Alkizako Santa Kurutz eta Santiagori (erreal erdi bana).

Katalinari Zestoan egingo zizkioten hiletak eta Zestoako elizan hobiratuko zuten. Bi aldiz hogeita hamar meza emango zituzten haren arimaren alde Zestoan. 30 meza Domingo Urbietak emango zituen, eta beste 30 Joan Otxoa Artazubiagakoak. 12 txanpon eta imina erdia linazi Domenja Enparan errainari emango zizkioten. Oheak eta arropak nola banatu ere agindu zuen Katalinak. Joan, Blas eta Maria ziren Katalina eta Estebanen seme-alabak. Joan izendatu zuten oinordeko, eta hari eman zioten herenaren eta bostenaren hobekuntza. Ezkontzen zirenean, Blas anaiari 60 dukat eta Maria arrebari 100 dukat emango zizkien Joaneak, baina aita Estebanek agindutakoa betez ezkonduko ziren. Bestela ez zuten herentzian parterik izango.

Ondasunen administratzaile Esteban Akertza izango zen. Hark kudeatuko zituen Katalinaren zilarrak ere. Arropak eta zorongak Maria Akertzak kudeatuko zituen. Testamentu-betearazle hauek izendatu zituen Katalinak: Esteban Akertza senarra, Joan Akertza semea eta Joan Otxoa Artazubiagakoa iloba.

Testamentuan lekuko hauek izan ziren: Zestoako Domingo Artiga anaia, eta Aia eta Alkizako Santuru Arratarte eta Migel Arruti (ikus [XVI. m. (27-VI) 14] agiria).

- 1527-VI-23an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Bartolome Txiribogak eta Joan Martin Indo arbitroek epaia jakinarazi zuten. Grazia Egañak eta Joan Paginolarreak auzia zuten elkarrekin, eta horregatik aukeratu zituzten, lehenago, Bartolome eta Joan Martin arbitro.

Epaia zioenez, Grazia Egañak Joan Paginolarreari 22 txanpon emango zizkion eta Bartolomek 12 (guztira 34). Gainera Graziak 3 erreal ordainduko zizkion Blas eskribuari, prozesuagatik eta testigantzetatik. Lekuko Martin Lizaso, Joan Bengoetxea eta beste zestoar bat izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VI) 16] agiria).

- 1527-VII-14an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Joan Zuube hargina eta Martin Zuube anaia elkartu ziren. Martin Zuube bere seme Joan Zuuberen izenean zegoen. Joan Zuube semeari Lope Amilibia aitona ardi batzuk utzi zizkion testamenuaren bidez, baina Joan Zuube harginak (Joanen osabak) ardiengan eskubidea berak zuela zioen. Arazoa konpontzeko lehen konpromisoa hartua zuten Joan Martinez Ibañetakoa eskribauaren aurrean, baina hura alde batera utzi eta beste bat hartu zuten.

Joan Zuube harginak arbitrotzat Pedro Askatsua izendatu zuen, eta Martin Zuubek Joan Lizaso "Suh". Bi arbitroak ados jartzen ez baziren, Martin Fernandez Edarritzagakoa izango zen hirugarren arbitroa. Epaia 15 eguneko epean emango zuten. Lekuko Pedro Iribarrera, Joan Urbietta eta Martin Etxeberria zestoarrak izan ziren (ikus [XVII. m. (27-VII) 13] agiria).

- 1527-VII-15ean, Zestoan, Arroako Grazia Artzubiagak Zestoako Frantzisko Apategiri maileguz urrezko 12 dukat eman zizkion Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Diru hura Frantziskok hurrengo martxoko Andre Mariaren egunetik urtebetera ordainduko zion. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Martin Otxoa Artazubiagakoa, Joan Iraeta eta San Joan Lili (ikus [XVI. m. (27-VII) 14] agiria).

- 1527-VII-22an, Zestoan, Debako Beltran Mantzizidor Maria Otxoa Igartzakoaren izenean aurkeztu zen Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Debako Joan Ermuak eta Joan Aldalurrek 4 dukateko zorra egin zioten Maria Otxoari, eta honek ondasunak exekutatu egin zizkien. Orduan bi zordunek zorra eta auzi-gastuak ordaindu egin zituzten, eta Beltran Mantzizidorrek ordainagiria eman zien. Lekuko hiru zestoar hauek izan ziren: Joan Arretxe, Joan Astigarribia eta Domingo Aldalur (ikus [XVI. m. (27-VII) 17] agiria).

Egun berean, Zestoan, Domingo Arretxe "Amezketan" goitizenekoak ordainagiria eman zien Joan eta Kristobal Goienetxea aita-semeei, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Aita-semeek sei kintal burdina eman zizkieten Domingori, eta, horrenbestez, elkarren arteko harremanetan izandako zor osoa kitaturik geratu zen. Lekuko Joan Gebara, Martin Artzubiaga eta Lope Ernataritz zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VII) 18] agiria).

- 1527-VII-26an, Iraetako burdinolaren ondoan, bertako Joan Martinez Igartuakoa olagizonak ordainagiria eman zion Martin Arzallus zestoarrari, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Martin Arzallusek Joani lehenago sei dukateko zorra egin zion Domingo Agirre eskribauaren aurrean, eta egun hartan Martin-

3.22. irudia. Arroako Zugastiberri.



ek zorra ordaindu egin zion. Lekuko Joango Iraeta, Periko Artzubiaga eta Joaniko Arretxe izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VII) 20] agiria).

Egun berean, Arroan, Zestoako Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Arroako Paskual Luberriaga eta Pedro Zugasti elkartu ziren. Paskualek obligazio-agiria eman zion Pedrori 24 dukat lau epetan ordaintzeko. Egun hartatik urtebetera sei dukat emango zizkion, eta handik aurrera urtero beste sei dukat, 24ak osatu arte.

Pedro Luberriaga zenak (hau da, Pedro Zugastiren aitagarrebak) 50 kintal burdina eman zizkion Kristobal Gaztañetari (Paskualen aitagarrebari), eta zor hura kitatzeko Paskualek Pedrori aipatutako 24 dukatak emango zizkion lau epetan. Lekuko Martin Artzuriaga eta Martin Olazabal zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VII) 21] agiria).

- 1527-VIII-19an, Aizarnan, Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Pedro Iribarrenak obligazio-agiria eman zion Joan Otxoa Gorosarrikoari. Pedrok 5 dukat Ramus Gorosarriari zor zizkion, eta Joan Otxoak zor hura ordaindu egin zion Ramusi. Beraz, zorra Pedro Iribarrenak Joan Otxoari ordainduko zion urtebete barru. Lekuko Joan Igartza, Martin Zulaika eta Ramus Gorosarri izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VIII) 11] agiria).

- 1527-VIII-21ean, Zestoan, bertako Joan Martinez Akertzakoa jostuna Blas Artazubiaga eskribauarekin elkartu zen. Joanek zioenez, emazte Maria Joango Ganbarak ezkontza prestatu zuen alaba Katalina Akertzarentzat Pedro Ezenarrokekin. Katalinari dotea eman eta kontratua egiteko, Maria Joangok senarraren baimena behar zuen, eta Joan Martinez sastreak eman egin zion. Lekuko Pedro Altzolarats, Martin Perez Artzubiagakoa eta Jakobo Baltzola izan ziren.

Biharamunean Blas Artazubiaga eskribauak Pedro Ezenarroken eta Katalina Akertzaren arteko ezkontza-kontratua idatzi zuen. Senar berria Pedro Ezenarro zenaren eta Maria Perez Zuubekoa zenaren semea zen. Zestoako Esteban Aisoro bikarioak ezkondu zituen egun hartan.

Pedro Ezenarrok ezkontzara ondasun hauek ekarri zituen: Lizarrarasko portalearen ondoko etxea, Arretxeazpitan zeukan lursaila (Artigakoen lurraren ondoan), Albizurierrekako 50 bat gaztainondo eta urrezko 200 bat dukat. Horietako 60 dukat Pedrok zeuzkan zorrak ordaintzeko izango ziren.

Maria Joango Ganbarak ondasun hauek eman zituen: urrezko 100 florin, Ariztondon Ertxiñako bi-dearen ondoko baratzea, zilarrezko katilua (Katalina Akertzak zeukana), hiru ohe oso, Katalina beraren jantziak eta zilarrezko zinta bat. Katalinak zilarrezko beste katilu bat eta beste ohe oso bat ere bazeuzkan. Aipatutako florinen herena hamar egun barru emango zien Maria Joangok, beste herena hurrengo abuztuko Andre Mariaren egunean, eta azken herena handik urtebetera. Gainerakoa Katalina eta Pedro elkarrekin bizitzen hasten zirenean emango zien.

Pedro Ezenarroken fidatzailea Domingo Lizarrarats zen, eta Maria Joango eta Katalinarenak Sebastian Artazubiaga, Blas Artazubiaga eskribaua eta Martin Artzuriaga. Ezkontza seme-alabarik izan gabe deuseztatzen baldin bazen, edo seme-alabak testamentua egiteko adina izan baino lehen hiltzen baldin baziren, ondasun bakoitza bere jatorrizko enborrera itzuliko zen urtebeteko epean. Ezkontzak iraundako denboraldian izandako irabaziak bi aldeentzat erdi bana izango ziren.

Alde bakoitzak konpromisoa hartu zuen bere fidatzaileak obligazio hartatik onik eta kalterik gabe ateratzeko. Ezkontza-kontratuan lekuko zestoar hauek izan ziren: Martin Perez Artzubiagakoa, Martin Akoa eta Domingo Zelaia, gazteena (ikus [XVI. m. (27-VIII) 13] agiria).

- 1527-VIII-27an, Zestoan, Arroako Maria Goienetxeak anaia Joan Goienetxeari obligazio-agiria eman zion Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean. Joanek Mariari urrezko bi dukat eta erdi eman zizkion guztira. Zati batekin zor batzuk ordaindu zizkion, eta beste zatia dirutan eman zion arrebari. Hurrengo Eguberri egunetik urtebetera ordainduko zion Mariak zorra.

Lekuko Bartolome Artzubiaga, Martin Ganbara eta Joan Ganbara zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VIII) 16] agiria).

Egun berean, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauak ahalordea idatzi zuen. Joan Goienetxeak ahalmena eman zion emazte Domenja Zuuberi, senarrari zor ziotena kobratu eta ondasunak kudea zitzan. Lekuko Martin Ganbara, Joan Ganbara eta Bartolome Artzubiaga izan ziren (ikus [XVI. m. (27-VIII) 17] agiria).

- 1527-IX-30ean, Zumaian, Joan Arbestain eskribauaren aurrean Arroakolako jabea (Joan Arrona) eta Joan Lopez Arriagakoa zumaiarra elkartu ziren. Arroarrak zumaiarrari 13 kintal burdina emango zizkion 1528. urteko San Sebastian egunean, Beduako ala Narruondoko errenterian, zergak ordainduta. Joan Lopezek lehenago kintal haien balioa dirutan maileguz eman zion Joan Arronari.

Obligazio-agirian lekuko Joan Uzkanga apaiza, Frantzisko Oikia eta Joan Amezketa zumaiarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-IX) 7] agiria).

-1527-XI-23an, Zumaian, Joan Arbestain eskribauarekin honako hauek elkartu ziren: batetik Zestoako Domingo Paginolarrea eta Joan Paginolarrea

semea, eta, bestetik, Iraetako burdinolako Joan Martinez Igartuakoa olagizona. Aita-semeek 300 karga ikatz egingo zizkieten Joan Martinezi; baita burdinolaraino garraiatu ere, hurrengo martxoko Andre Mariaren egunerako.

Ikatz haiekin Iraetako burdinolan lortutako burdinaren erdia Domingo eta Joan aita-semeentzat izango zen. Bestalde, Joan Martinez olagizonak 12 kintal burdina maileguz eman zien aita-semeei. Hurrengo martxoko Andre Mariaren egunean itzuliko zioten burdina Beduako errenterian, zergak ordainduta. Lekuko Andres Perez Indanetakoa eta beste bi zumaiar izan ziren (ikus [XVI. m. (27-XI) 1] agiria).

- 1527-XII-6an, Zestoan, Zumaiako Mateo Enbil eta Zestoako Maria Urbietta serora elkartu ziren Blas Artazubiaga eskribauarekin. Mariak Mateori Gaztelako 20 erreal baino gehiago eta tostoi bat (Portugalgo dirua) ken 7 txanpon maileguz eman zizkion. Mateok Mariari zorra hurrengo Eguberri egunean ordainduko zion. Lekuko Domingo Zabala, Martin Artzuriaga eta Matxin Akertza zestoarrak izan ziren (ikus [XVI. m. (27-XII) 1] agiria).

- 1527-XII-13an, Zestoako Urbietan, Blas Artazubiaga eskribaua eta Santxa Ruiz Txiribogakoa alargu-

3.23. irudia. Urbietta baserria.



na elkartu ziren. Santxak zioenez, lehenago Zestoako San Joan Ibañeta eta Zumaiako Joan Arbestain eskribauen aurrean zenbait kontratu egin zituen Pedro Zumaiia edo Txiriboga zenarekin eta honen ama Katalina Diaz Mirubikoarekin.

Ama-seeek zorra egin zioten Santxa Ruizi, eta ez zioten ordaintzen. Ondorioz, Santxak auzitara eramane zituen korrejidorearen aurrera, Txiribogako etxe, errota eta burdinola bahitu eta ondasunak exekuta ziztaten. Egoera horretan, Bartolome Txiribogak Santxa Ruizi, hain zuzen Pedrok eta Katalinak egindako zorra ordaindu egin zion. Beraz, Santxak zorra Katalinari kobratzeko eskubide guztiak Bartolome Txiribogari eman zizkion. Agirian lekuko Zestoako Domingo Areitzaga, Domingo Aldalur eta Joan Oliden izan ziren (ikus [XVI. m. (27-XII) 2] agiria).

- 1527-XII-24an, Zestoan, Blas Artazubiaga eskribauarekin Esteban, Martina eta Grazia Eztiola anai-arrebak bildu ziren. Bertan zen Zestoako bikario Esteban Aisoro ere. Anai-arreben gurasoak, Joan Eztiola eta Katalina Aisoro, hilak ziren. Ordura arte Esteban Aisoro izan zen seme-alaben tutore eta zaintzaile, eta egun hartan bikarioak kontuak azaldu eta zegokiena ordaindu egin zien.

Gurasoek seme-alabei herentzian 110 kintal burdina eta zilarrezko katilu bat utzi zieten. Esteban Aisoro tutoreak handik Katalina Aisoro zenaren zorrak eta bi gurasoen hiletak ordaindu zituen. Gainerakotik Esteban, Martina eta Grazia Eztiolari 14na dukat eta 12 txanpon ordaindu zien tutoreak. Horrenbestez Esteban Aisoro libre geratu zen tutore izatetik, eta anai-arrebek ordainagiria eman zioten.

Lekuko honako hauek izan ziren: Zestoako Fernando Olazabal, Domingo Zabala eta Martin Artzuriaga, eta Azpeitiko Martin Jauregi. Jarraian, leku berean eta eskribau zein lekuko berak aurrean zirela, Martina erta Grazia Eztiola ahizpek zin egin zuten ordainagiriaren aurka 25 urte bete gabeak zirela edo beste ezer ez zutela argudiatuko (ikus [XVI. m. (27-XII) 7] agiria).

3.1.13. Gipuzkoako Batzarrek eta Zestoako Ordenantza famatua

1527. urtean Usarragan Gipuzkoako Batzar Bereziak bildu ziren, Donostiako Kontzejuak deituta². Uztailaren 1ean eta 2an izan ziren (astelehenez eta asteartez), eta Zestoatik Joan Perez Arretxekoa joan zen prokuradore (ikus [XVI. m. (27-VI) 23] agiria).

Basarten ere izan ziren Batzar Bereziak, Azpeitiko Kontzejuak deituta, Hungariako erregea hil zenean.

Maiatzean Zestoan ospatu ziren, 14 egunetan, Gipuzkoako Batzar Nagusiak. Gastuen banaketa egin zuten bertan. Diego Vargas korrejidorea, Frantzisko Perez Idiakaizkoa eskribaua eta Probintziako zazpi ermandade-alkateak ere bertan ziren. Hainbat gai aztertu eta zenbait erabaki hartu zuten bertan, eta hemen batzuk baino ez ditugu aipatuko:

Probintziaren aginduz Joan Martinez Olotzagakoa kontulariak ikerketak egin zituen Probintziari zenbait dukat zegozkion jakiteko. Elgeta eta Elorrioren arteko desadostasunak aztertzeke Bizkaiko Batzarretara Pero Otxoa Santamariakoa eta Donostiako probestua bidali zituzten prokuradore gisa.

Aiako Segurola batxilerrari urte hartan etxea eta burdinola erre egin zitzaizkion, eta Probintziak bere ohiko laguntza eman zion, urte hartan erretako gainerako etxeen jabeei bezalaxe. Probintziak, egindako gastuak ordaintzeko, 195.080 marai kobratuko zituen, hau da, sukalde baloitzak 90,50 marai ordainduko zituen. Zestoako Joan Martinez Amilibikoa arduratuko zen kopuru hura hurrengo Segurako Batzar Nagusietarako kobratzen.

Zestoako Batzar Nagusietan gipuzkoarren kaparetasunaz ordenantza bat onartu zuten. Gipuzkoarrak beldur ziren beste leku eta erreinuetatik azken orduan kristau bihurtutako mairu, judu edo beste arraza gaitzetsietakoak Inkisiziotik ihesi Probintziara etorri eta bertan kapare gisa biziko ote ziren. Ondorioz, onartutako ordenantzarekin Zabala batxilerra gotera bidali zuten, onespren bila².

Haren guztiaren ondorioz, 1527-VII-13an, Valladolidtik Karlos enperadorearen eta Joana erreginaren gutuna bidali zuten Gipuzkoara eta haien erreinue-tara. Ordenantzak zioenez, Gipuzkoara ordura arte kanpotik jendea etorri zen bizitzera, baina, esaten zutenenez, haietako asko ez ziren kapare edo aitoren seme. Beraz, gipuzkoarren garbitasuna (hau da, *odol-garbitasuna*) zalantzan jartzen zuten. Horregatik, handik aurrera aitoren seme ez zen inor ez zuten onartuko Gipuzkoako hiribildu eta lurretan. Alkateek, bakoitzak bere jurisdikzioan, zorrotz beteko zuten agindu hura, eta Kontzejuen kontura ikerketak egingo zituzten. Kapare zirela (hots, odol garbikoak edo kristau zaharrak zirela) frogatzen ez zutenak Probintziatik kanpora bota egingo zituzten.

Informazio faltsuaz edo beste zerbaitez baliatuta kapare ez zena Gipuzkoan bizi baldin bazen, kanporatu egingo zuten eta haren ondasunak hiru zati egin da banatu egingo zituzten: heren bat Probintziarentzat izango zen, beste heren bat salatzailearentzat, eta hirugarren herena epaia eman eta betetzen zuen epailearentzat (ikus [XVI. m. (27-VII) 10] agiria).

Ez da ahaztu behar lehenago ere, 1510. urtean, Gipuzkoak Joana *Eroa* erreginari antzeko mesedea eskatu ziola. Garai hartan kristau bihurtutako zenbait mairu eta judu Gipuzkoara etorri omen zen bizitzera, eta Probintziak haiek kanporatzeko mesedea eskatu zion. 1510-XII-24ko gutunean onartu zuen erreginak eskabidea (ikus *II ZESTOA XVI. MENDEAN (1501-1520)* liburuko 2.5.7. atala).

Harrezkero Gipuzkoan bizi nahi zuenak eta erakunde publikoetan parte hartu nahi zuenak bere kaparetasuna frogatu egin behar izaten zuen, hau da, haren arbasoak (guraso, aitona eta birraitonak) kristau zahar edo odol garbikoak zirela. 1563. urtean hasitako auzi batean Zestoara bizitzera etorritako Andres Oraa maisua izan zen odol-garbitasuna frogatu zuenetako bat. Andres maisua Zestoako Kontzejuko bileratik atera egin zuten kaparea ez zelakoan. Zumarragako Oragoikoan 1481-III-25eko egindako agiri baten bidez frogatu zuen Txatxi Oraa, honen aita Joan Oraa eta



3.24. irudia. Zestoako armarrria.

Grazia Oraa ama etxe hartako jabeak, arbaso zituela eta Andres maisuaren jatorria etxe hura zela³.

1527. urteko beste Batzar Nagusiak Seguran ospatu ziren. Zenbait gai aztertu ziren, eta baita kapare ez zirenak Probintziatik irten beharraz ere. Beste auzi bat Probintziak Arrasate eta Eibarko Ugarteburu eta Pero Otxoa Santamariakoa batxilerrekin zuen. Bi batxilerrek Probintziaren aginduz zenbait lan egin zuten, baina haiei ordaintzeaz ez ziren ados jartzen. Akordioa egitearen aurka azaldu ziren Zestoa, Mutriku, Tolosa, Arrasate eta beste zenbait Kontzejutako prokuradoreak. Dena den, auziaz azken epaia Valladolidko Kantzelaritzan 1527-IV-15ean eman zuten⁴.

Segurako Batzar haietan Gipuzkoara ekartzeko gariaz kezkatuak zeuden. Nafarroatik ez zuten garirik atera nahi, eta Frantziako erreinutik ere ez. Probintziak

eskatuta Burgostik errege-gutuna iritsi zen, Arabatik Gipuzkoara garia eramateko askatasuna ontzat hartuz.

Azpeitian 1527ko Ostegun Santu egunez bertako erretore Pero Lopez Loiolakoa eta apiazek Maria Enparanen sortutako moja-komentuari eraso egin zioten². Urte hartako irailean, berriz, Azpeitiko elizara Iruñeko apezpiku laguntzailea (Reinaldo Cancellariis) bisita egitera etorri zen. Asteasu, Donostia, Orio, Aia, Zumaia, Segura eta Tolosako elizak ere ikuskatu zituen. Gipuzkoako artzapez-barrutian ohikoa zen bisitan zetorren apezpikuari 92 florin eta laurden ordaintzea, baina Gipuzkoako erretoreek ez zuten apezpikua beren etxeetan hartu, eta ostatu publikoetan egon zen, gastuak berak ordainduta. Apezpikuaren iritziz, Gipuzkoako apaizak biziotsu eta bekatari ziren. Auziatara eraman zituen apezpikuak⁵.

Erroman, berriz, Alemaniako enperadore Karlos Varen tropek Erroma setiatu eta maiatzaren 6an

konkistatu egin zuten. Klemente VII.a aita santua Frantziarekin elkaturik zebilen eta Espainiako erregearen tropek eraso egin zioten, Aita Santuaren mendeko lurraldeetara sartuta. Aita Santuak Erromako Sant'Angelo gazteluan babestea lortu zuen, baina Alemaniako eta Espainiako tropek Erroma osoa hainbat egunetan arpilatu egin zuten. Klemente VII.a ekainaren 6an errenditu zen. Isun handia ordaindu zuen eta zenbait hiri Karlos enperadorearen mende geratu zen. Erroman erasoan eta arpilaketan ibilitako bat Martin Ruiz Abendaño-Ganboakoa elgoibartarra izan zen².

Kontuan hartzekoa da Karlos enperadoreak bere gutunetan “su cesarea e catolica magestad” ipini ohi zuela, baina hala eta ere, Eliza Katolikoaren buruari, Aita Santuari, gerra odoltsuaren bidez aurka egin ziola. Bestalde, Klemente VII.a aita santuak ez zuen, guk dakigunez behintzat, gertaera haiengatik inor eskumikatu.

3.2. HIRUGARREN KAPITULUKO OHARRAK

¹ DIEZ DE SALAZAR, L. M. Ferrerías guipuzcoanas. Aspectos socio-económicos, laborales y fiscales (siglos XIV-XVI). Donostia, 1977. (398. or.).

² ORELLA UNZUE, J. L. Instituciones de Gipuzkoa y Oficiales Reales en la Provincia (1491-1530). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1995. (68, 106, 112, 113, 236, 237. or.).

³ XX. Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Pleitos civiles. Fernando Alonso (F). 810/7. (152-155, 165. or.).

⁴ XX. Valladolidko Kantzelaritzako Artxiboa. Registro de Reales Ejecutorios. 397/10. (1-31. or.).

⁵ GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona. III. alea. Siglo XVI. Iruñea, 1985. (157, 158. or.).

